


Berrigara

BERGARA • ELGETA • ANTZUOLA / Egubakoitza / 2003ko ekainaren 20a / 545. zenbakia



Ibai garbiagoa

Herriko ur zikinak jasoko dituen kolektorearen hodiak sartzen hasi dira kaleetan

FUTBOLA: JUANJO ARRIETA EIBARRERA BERRIZ/11 • ANTZERKIA: ISPILU TALDEA BIHAR ZABALOTEGIN/12

月

自

有

不

乎

Aurtengo udan ez etsi...



...zatoz udako ikastaroetara eta euskara ikasiko duzu

HABEren dirulaguntzaz



- Euskalduntze eta alfabetatze maila guztiak eta EGA
 - Matrikulazio epea EKAINAREN 16tik 26ra
- Bulego ordutegia:
08:30-12:30
14:30-18:30

BERGARAKO UDAL EUSKALTEGIA
Zabalotegi, 13
BERGARA
Tfnoa.: 943 76 44 53
berg.eusk@udal.gipuzkoa.net

BERRIAK

Gertu-gertuko informazioa

Egunero,

14:30ean eta 15:30ean

20:00etan, 21:00etan, 22:00etan eta 23:00etan

Aurkezleak:

Gorka Etxabe

Maidar Osa



Ikusiko
duzu!



ATREBENTZIAEZPADA/ Eguzkixa hartzera igerilekura jungo zara ala beste tokiren batera?



ZURIÑE AGIRREZABALAGA
40 urte




FELISA LANBEA
74 urte



GARIKOITZ ARRIBAS
17 urte



AMAIA ORTIGOSA
14 urte



UNAI GORRITI
17 urte



CONGHI SANTOS
46 urte

Bai, normalian jun izan naiz, eta oin be jungo naiz. Zera, penia da igerileku txikixa bakarrik egotia eta haundixa ez, baiña bueno, dagonakin konformatu biharko gara.

Ez naiz igerilekura juten. Urtian behin bidaiaren bat egiten dot, baiña, bestela, ez dot eguzkirik hartzen. Noizian behin hondartzara juten naiz, baiña eguzkitakuakin.

Bai, jungo naiz. Batez be bero egitten dabenian. Gaiñera, esan dabe tenperaturak gora egin bihar dauela. Txarrena da igerileku haundixa ezin izango dogu erabili.

Ez dago oso ondo. Aterpia daukan ez dago lehen bezain ondo, baiña hala eta be jungo naiz. Hondartzara jutia ez jat gustatzen, baiña eguzkixa hartzia gustatzen jat.

Seguru jungo naizela. Egiten dittuan beruekin... Egixa esan, penia da igerileku haundixana. Txikixan ezin da jolastu hain ondo, salto egin eta holakuak, gutxi kubritzen dau-eta.

Ez naiz jungo. Ez ezergaittik, kontua da alergixa dotsatela eguzkixari, eta horretxegatik ezin naiz eguzkittan jarri, ez igerilekuan ez beste iñun. Beti kerizpian egoten naiz.

TXALOAKETATXISTUAK



TXISTUAK ETA OINEZKOAK? Irakurle horrek soberan daki autoak aparkatzeko zer-nolako arazoa dagoen herrian. Hala eta guztiz ere, oinezkoenganako gutxieneko errespetua izan behar dugula uste du. Ibargarain, hutsik dagoen orubearen parean, oinezkoendako espaloia dagoela diosku, baina autoek han aparkatu eta oinezkoek errepidera irten beharra izaten dutela handik pasatzeko. /M.B.

ETABARRUAN...

ASTEKO BERRIAK /5

KIROLAK /11

KULTURA /12

Kolektoreko lanak hasi dira

Hiru fasetan egingo dituzte eta astelehenean ekin zieten bigarren fasekoei, Bideberri eta Ibarra artekoei.

Junjo Arrieta, Eibarrera

Javi Pérezek eta Juanjo Arrietak Eibar futbol taldea zuzenduko dute ligako azken bi jardunaldietan.

Ispilu taldea Zabalotegin

Donostiako antzerki taldeak *El cadaver del señor García* lana egingo du bihar, 19:00etan.

ASTEKODATUA

3

MASTERREKA KALEA ITXITA EGONGO DEN HILABETEA

Kolektorearen hodiak sartzeko lanak direla-eta itxi dute, eta hala egongo da, hiru hilabetez, ibilgai-luendako. Hala, Elosu aldera joateko Artekaletik egin beharko da; jaitsi, aldiz, Barrenkaletik.

BESTEKEESANA

“Topeka film labor oso inprobisatua da, eta asteburu batean grabatu genuen. (...) Aurrez, beste hiru

film labor eginda neuzkan, eta banekien nolako den prozesu guztia; bi edo hiru urte eraman dezakeen prozesua. Ez neukan hortik igarotzeko gogorik. Hori horrela, asteburu batean laurogei lagun eta bi ahari batu nituen eta film laburra egin genuen. ASIER ALTUNA 'KIXI' / Errealizadorea 'Deia'/03-06-15

“Mariasun Landaren ipuin baten oinarritutako Galtzerdi lana prestatzen dihardugu. Uztail bukaeran estreina dezakegu, baina ez dugu datarik jarri nahi, lanean ari gara-eta. ITXASO AZKARATE / Taun-Taun taldeko kidea 'El Diario Vasco'/03-06-18

BERAIEKDIÑOÈ/ Jon Suinaga



Lorik ez egiteko ipuina

Ingeles bat, estatubatuar bat eta espainiar bat zeuden. Hirurak lagun minak ziren eta oso ondo konpontzen ziren euren artean. Hori bai, pixka bat bihurriak ziren, eta elkarrekin zeuden egindako azken gaiztakeria ospatzen.

Tony, ingelesa, hasi zen esaten: “Nire herria gerrara eramatea erraza izan zen. Gu besteak baino gehiago gara eta hori erakusteko dena aldrebes egiten dugu. Adibidez, Euroa ez dugu nahi, ezkerretik gidatzen dugu, eta abar... Orduan, munduko jende gehiena gerraren kontra azaldu zenez... ¡Ba gu gerrara!”.

“Ez dago gaizki, ez dago gaizki...”, baieztatu zuen George izeneko estatubatuarra, eta erantsi zuen: “Guk ideiak manipulatu egiten ditugu herriari iruzur egiteko. Gure taktika jendea beldurtuta edukitzea da. Eta interesatzen zaigunean, mehatxu mamu honi ezker, edozein herri suntsitu eta inbaditu egiten

dugu. Eta gero zerbait baliotsua gelditzen bada, lapurtu egiten dugu”.

Jose Marik, espainolak, zehaztu zuen: “*Miren usstedes*, guk, herritarrek distraituta mantentzeko, betiko azpijokoa erabili dugu. Alde batetik, euskaldunen eskubideak

“Betiko azpijokoa erabili dugu: euskaldunen eskubideak zapaldu eta ze gaiztoak diren esan”

zapaltzen ditugu eta komunikabideetatik jendea bonbardatu egiten dugu kontatzen zein gaiztoak diren separatista horiek. Eta beste aldetik, ezin dugu futbola ahaztu, herriaren Opoia. ¡*Y lesss dire mas!*, azkenean gerra nola

zihuan ikustean, horrenbeste errugabe txikitzen eta hainbeste jende gerraren kontra azaldu eta gero, artilleria astuna atera genuen. Dinio, Yola eta Pocholo, gure hiru agente sekretu onenak, jende guztiak gerraz hitz egin beharrean, autobus baten izandako gertakariez eta motxila batez hitz egitea lortu genuen. ¡*Es España va bien!*”.

Ja, ja, oso ona da... Bai?... Ez dela txiste bat? Baina, baina...

Berrigara

Irizar Jauregia • Barrenkalea 33
20570 BERGARA
Tel.: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: berrigara@goiena.com

ZUZENDARIA
Edu Mendibil
ERREDAKZIOA
Monika Belastegi,
Aintzane Irizar
MAKETAZIOA
Iñaki Iturbe

PUBLIZITATEA
Mireia Larrañaga
KOLABORATZAILERAK
Luis Mari Agirre
Juan Martin Elexpuru
Miguel Angel
Elkorobereibar

LEGE-GORDAILUA
SS-50/91
ISSN
1130-6599
TIRADA
5.900 ale

Goiena
Komunikazio Zehitzuak

BERRIGARA / KONTUOLA / GOIBEKOKALE • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaureritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Begarako
Udala



Antzuolako
Udala



Elgetako
Udala

GUARDIAKOFARMAZIAK

EGUBAKOITZA, 20
GUALLAR, San Antonio 5. 943 76 11 05

ZAPATUA, 21
ESTELLA, Matxiategi 5. 943 76 19 63

DOMEKA, 22
ESTELLA, Matxiategi 5. 943 76 19 63

ASTELEHENA, 23
MOZOS, San Pedro 4. 943 76 12 15

MARTITZENA, 24
CAMACHO, Oxirondo 4. 943 76 11 74

EGUAZTENA, 25
PUY, Barrenkalea 25. 943 76 16 87

EGUENA, 26
GUALLAR, San Antonio 5. 943 76 11 05

TELEFONOJAKINGARRIAK

OSASUNA / LARRIALDIK

Anbulatorioa (txanda) 943 76 24 40
Bergarako Udaltzaingoa 943 77 91 06
Antzuolako Udaltzaingoa 943 76 62 46
Ertzaintza 943 76 53 40
Osasun etxea 943 76 24 40
Asepeyo 943 76 16 43
Pakea 943 76 13 49
Angiozarko medikua 943 78 90 27
Antzuolako medikua 943 76 62 23
Odol emaleak 943 76 16 24
Alkoholiko Anonimoak 943 76 51 06

GARRIAK

Taxiak 943 76 19 50

UDALA

Bergarako Udaletxea 943 77 91 00
Antzuolako Udaletxea 943 76 62 46
Udal Artxiboa 943 77 91 32
Igerilekuak 943 76 20 51
Kultura etxea 943 77 91 58
Liburutegia 943 77 91 62
Kirodegia 943 76 56 41
Mizpirualde egoitza 943 76 13 68

BESTELAKOAK

Epaitegia 943 76 14 92
Erregistroa 943 76 13 15
Jardun 943 76 36 61
Idolaz 943 76 65 08
Erretiratuen etxea, Bergara 943 76 21 40
Antzuolako erretiratuen elk. 943 76 62 71
Postetxea 943 76 26 85
Bedelkar 943 76 04 68
Akulu AEK 943 76 05 18
Udal Euskaltegia 943 76 44 53
Bergarako notariotza 943 76 10 73

MEZAK

San Pedro	Labegarieta
Domekak:	Domekak: 11:00.
09:30, 12:30.	San Lorentzo
Zapatuak eta	Zapatuak: 20:00.
lanegunak:	Angiozar
19:00.	Domekak: 11:30.
Sierbak	Moja Zaharrak
Lanegunak: 19:15.	Lanegunak: 09:00.
Zapatuak:	Zapatuak: 11:00.
19:00.	Mizpirualde
Domekak:	Lanegunak: 11:45.
11:30, 13:00.	Zapatuak: 17:30.
Osintxu	Antzuola
Domekak: 12:30.	Domekak:
Zapatuak: 19:00.	09:00, 11:30.
Elosu	Zapatuak eta
Domekak: 10:30.	lanegunak: 19:30.
Ubera	Uzarraga
Domekak: 10:30.	Domekak: 10:00.
San Juan	Elgeta
Domekak: 11:00.	Lanegunak: 09:00.
Elorregi	Zapatuak: 19:30.
Domekak: 10:30.	Domekak: 12:00.

URTE-MEZAK

Santa Marina (Sierbetan)
Hileko bigarren astean, domekan, 11:30ean.

San Pedro
Hileko hirugarren astean, domekan, 12:30ean.

OHARRAK

1960AN JAIOTAKOEN AFARIA
1960an jaiotako bergarrek afaria egingo dute ekainaren 21ean Txarrantxa jatetxean. Egunean bertan frontoian elkartuko dira, 20:30ean. Interesatuak Kutxan irekitako kontuan (2101 0087 7500 0307 3814) eman dezakete izena, ekainaren 18a baino lehen.

PILOTA SAILAREN ZOZKETA
Bergara KEko Pilota Sailak egindako zozketan 1.095 izan da zerbakiak saritua. Txartelaren jabeak pilota finalerako bi sarrera eta 500 euro eskuratuko ditu. 2.767 zerbakiari, berriz, Infernukua tabernan lau lagunendako afaria eta 200 euro egokitu zaizkio. Saritutakoek 943 76 23 01 (Reyes Azkoitia) telefonora deitu beharko dute.

MODA DESFILEKO BIDEOA
Bihar, zapatua, joan zen maiatzaren 17an Jam aretoan nesken futbolaren alde egin zen moda desfileko bideo emanaldia izango da kultura etxean, 11:00etan.

SAN MARTZIALERAKO MAHAIK
San Martzialerako mahaiak hilaren 30era arte hartu ahal dira errentan kultura etxean, aste barruan, 18:00etatik 21:00etara.

JARDUNENAGENDA

UMEENDAKO JOLASLEKU IBILTARIA GAUR, EGUBAKOITZA
Jardunen Jolasleku Ibiltaria egongo da gaur, egubakoitza, Fraiskozurin, 17:00etatik 19:00etara, Lehen Hezkuntzako neska-mutikoendako. Jarduneko begiraleekin batera hainbat jolas egiteko eta abesteko aukera izango dute neska-mutilek.

URBANOENORDUTEGIA

San Lorentzo / San Juandik irteerak
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.
GERALEKUAK: San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorentzo (Soraluze aurrean), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurraero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegarieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

Labegarieta / Olabarrenetik irteerak
07:20, 07:35, 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.
GERALEKUAK: Labegarieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoioia (Mintegi), San Pedro, Arruriaga (Konde), Zubieta, Mugeretza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

ORAINDELA 10URTEBERRIGARAN


Agirre eta Muruamendiaraz, Euskadiko txapeladun

Amaia Agirrek eta Edu Muruamendiarazek 1993ko ekainaren 20an Seguran jokotutako Euskadiko Dantza Sueltoke Txapelketa irabazi zuten. Segurako finalean hamar bikote izan ziren lehian. Era berean, Jantzi Onenaren saria ere eskuratu zuten bikote bergararrak.



BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru

“Dunbia”



Zintzarri handia.
—Gabaz entzuten da zaldixen dunba-otsa.

GORKA ORTEGA

HAUGIROA!

MINIMOA
Zapatua, 14 **16 °C**

MAXIMOA
Egubakoitza, 13 **37 °C**

ASTEKO
EURIA (l/m²) **0,5 L**


	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 11	32 °C	19 °C	— l/m ²
Eguena, 12	28 °C	18 °C	0,2 l/m ²
Egubakoitza, 13	37 °C	17 °C	— l/m ²
Zapatua, 14	32 °C	16 °C	— l/m ²
Domeka, 15	33 °C	20 °C	— l/m ²
Astelehen, 16	23 °C	20 °C	— l/m ²
Martitzena, 17	20 °C	17 °C	0,3 l/m ²

San Juan auzoan jasotako datuak

GOGORATZEKO

ODOL ATERATZEA EGUAZTENEAN

Bergarako odol emaleek jakinarazi dutenez, eguaztenean, ekainaren 25ean, odol ateratzea egingo dute. Ohikoa den moduan, 18:30ean hasiko dira odol ateratzeak Seminarioko lokalean. Bergarako Odol Emaleen Elkarteak 1967an sortu zen eta gaur egun 1.400 odol emale daude elkartearen. Gipuzkoan, Bergara dugu odol gehien ematen duen herrietako bat. Uztailean beste bi odol ateratze egingo dituzte, hilaren 9an eta 23an, hain zuzen ere.



BERGARA

Margoak



Kalitatea eta zerbitzua.

Amillaga 1, 1 pabilioia, goiko solairua. 162 posta kutxa, 20570 BERGARA
Tel.: 943 76 97 31 Faxa: 943 76 97 32. bergara.margoak@terra.es




ENEKO AZKARATE

Bergara Aurreraren aldeko herritar ugari egon ziren bilkuran.



ENEKO AZKARATE

08:00ak ezkerko ertzain ugari egon ziren, batez ere San Martin plazan.



ENEKO AZKARATE

Bergara Aurrerako ordezkariak euren eserlekuak aldarrikatu zituzten.



ENEKO AZKARATE

Victoriano Gallastegik bere koalizioaren aldeko hamar botoekin hartu zuen kargua.



ENEKO AZKARATE

EBko Díez, PPko Santano, PSE-EEko Garai eta Aralar larko Etxaniz, Etxeberria eta Larrañaga.

UDALBATZA/ Aralar alderdiko lau zinegotzietako hiruk bakarrik jardungo dute Udalean; izan ere, laugarren hori ez dagokiola uste du Aralarrek

Bergara Aurrerako kideen oihuen artean hartu zuen alkate kargua Gallastegik

MONIKA BELASTEGI

Garrasi artean eratu zen zapatuan udalbatza berria. Iragarri zuten moduan, BAKo ordezkariak bilkuran egon ziren euren eserlekuak aldarrikatzeko. BAREN aldeko herritar ugari ere han egon ziren. Gallastegik haien garrasien artean hartu zuen alkate kargua.

Udalbatza berria osatzeko bilkura berezia 12:00etan hastekoa bazen ere, osoko bilkuren aretoa ordu erdi lehenago bete zen zapatuan. Bergara Aurrera plataformaren aldeko hainbat herritar hurbildu ziren, besteak beste, Udala osatzeko ekitaldira. Bestalde, goizean goizetik ertzain ugari egon ziren herrian, batez ere San Martin plazan.

12:00etan hasi zen bilkura, eta udalbatza berrien osaketako araudiak dioen moduan, Adin Mahaia eratu zuten lehenik: zinegotzi nagusienak, Juan Garitanok, eta gazteenak, Igor Oyarbidek, eratu zuten, biak EAJ-EAkoak.

Mahaia eratu eta berehala hasi ziren ikusleak garrasika. Beste gauza batzuen artean, "Herriaren borondatea errespetatu", "Putxerazorik ez", "Lapurrak" eta horrelako oihuak entzun ziren bilkura aretoan.

Udaletxeko idazkaria zinegotzietan osoko bilkuren aretoan zegoen jarlekuan esertzeko deika hasi zenean ere ez ziren garrasiak isildu. Azken baten, bilkurak iraun zuen denbora guztian entzun ahal izan zen BAREN aldeko herritarren ahotsa.

Horrekin batera, zinegotziak euren jarlekuetan eserita zeudela, BA plataformako lau ordezkariak -Jesus Mari Garitano,

Mila Elortza, Mikel Eguren eta Maite Guridi- zutitu eta zinegotzietan eserlekuetara hurbilduz zera eskatu zuten: "Herritarren %20aren borondatea errespetatzeko" eta, ondorioz "BARI udalbatzan dagokion lekua ere bai".

HAMAZAZPITIK HAMASEI ZINEGOTZIRA Bergarako udalbatza hamazazpi zinegotzik osatzen duten arren, zapatuan hamasei eserleku besterik ez zen bete, eta badirudi hala funtzionatuko duela aurrerantzean. Kontua da Aralar alderdiko lau zinegotzietatik hiruk bakarrik hartu zutela kargua zapatuan; Juan Martin Elexpuru ez zen bilkuran egon.

Aralar alderdiak bilkuraren aurretik azaldu zuten, "herriarregandik jasotako hiru zinegotzietatik" bakarrik jardungo dute Udalean. Maiatzaren 25ean lortutako laugarren zinegotzia ez dagokiela uste dute. Hori horrela, eta aurreko astean zinegotzi izateko akta lau ordezkariak hartu zuten arren, ez dute laugarren zinegotzi hori prak-

tikan erabiliko, eta ez da osoko bilkuretan egongo.

VICTORIANO GALLASTEGI ALKATE LAUGARREN ALDIZ

Victoriano Gallastegik alkate kargua hartu zuen zapatuan, zinegotzietan egindako bozketan gehiengoa lortuta.

EAJ-EA koalizioaren hamar botoak lortu zituen Victoriano Gallastegik bozketan. Alderdi sozialista, alderdi popularra eta Ezker Batua abstenitu egin ziren eta Aralar alderdiak, berriz, ez zuten bozkatu.

Horrekin guztiarekin, laugarren agintaldia da Gallastegi alkate dela.

Udalbatza berria

- EAJ-EA
- Victoriano Gallastegi, alkatea
- Josean Etxeberria
- German Muruamendiaraz
- Juan Jose Arrieta
- Juan Garitano
- Arantzazu Amasorrain
- Valentin Egidazu
- Luis Abajo
- Iñaki Zabala
- Igor Oyarbide

- ARALAR
- Ainhoa Larrañaga
- Juan Martin Elexpuru
- Martin Etxeberria
- Mikel Etxaniz

- PSE-EE
- Francisco Javier Garai

- PP
- Angel Santano

- EB
- Andres Díez

EAJ-EAren hamar botoekin hartu zuen alkate kargua Victoriano Gallastegik

Herritar ugari hurbildu ziren bilkurara BAREN ordezkariekin bat eginez



MONIKA BELASTEGI

Aurtengo udako denboraldian ez dute igerileku handia zabalduko baina berdegunean eguzkia hartzeko aukera egongo da.

IGERILEKUAK/Aurreko zapatuan zabaldu zuten berdegunea udako denboraldirako

Bainurako igerileku txikia bakarrik zabaldu dute

MONIKA BELASTEGI

Udako denboraldiarekin batera, aurreko zapatuan zabaldu zuten kanpoko igerileku eguzkia hartzeko. Bainurako putzu txikia besterik ez dago. Gallastegi alkateak azaldu duenez, hainbat herritarrek galdetu diote igerileku handia zergatik ez duten zabaldu.

Aurreko zapatua ezker dago zabalik igerilekuetako berdegunea. Horrez gain, eta udako denboraldian sartu garelako kontuan izanda, behin-behineko igerileku estaltzen duen karpari paretak kenduko dizkiote, eguraldiaren arabera, eta estalkia mantendu egingo diote.

Horrekin batera, freskagarri, janari eta kafe makinak jarri dituzte, iaz bezala, eta berdegunean hamakak eta dutxak egon-

go dira. Sarrerak, berriz, hiru euro balio du.

Ordulegiari dagokionez, honakoa izango du: lanegunetan, 07:00etatik 09:00etara; aste bukaretan eta jaiegunetan, berriz, 09:00etatik 21:00etara; eta abuztuan, aste osoan barrena, 09:00etatik 21:00etara.

Bestalde, Kirol Zerbitzutik aurreratu dutenez, hasiera baten, behintzat, abuztu amaierara arte egongo da zabalik berdegunea, nahiz eta agian epea luzatuko duten.

IGERILEKU HANDIA EZ ZABALTZEKO ARRAZOIAK

Victoriano Gallastegi alkateak zera esan zuen: "Jende askok galdetu du ea zergatik ez dugun igerileku handia zabaldu". Hori horrela, igerileku handia ez zabalteko arrazoiak azaldu ditu erre-dakziora bidalitako ohar baten

Bergarako alkateak.

Zera dio oharrean: "Behin-behineko igerileku txikiko obrak egiterakoan, ura eta haizea berotu ahal izateko, galdaren gela sartu behar izan genuen makina gelan. Horretarako, igeritoki handiko ura tratatzeko erabiltzen zen bi filtroetako bat desegin behar izan genuen, tokirik ez zegoelako. Horren ondorioa da igeritoki handia ezin dela mar txan jarri, filtro bakararekin ezinezkoa delako".

Hala eta guztiz ere, ahalik eta zerbitzu onena emateko ahalegina egiten dihardutela gehitu du Gallastegik: "Ur eremua lehen baino txikiagoa den arren, eguzkia hartzeko berdegunea, neurri handi baten, behintzat, mantendu egin dugu, baita gainerako zerbitzuak ere: hamakak, dutxak eta edari eta janari makinak, beste batzuen artean".

Otaba jaiak ospatuko dituzte Elosun astelehenera bitartean

MONIK ABELASTEGI

Elosu auzora ere iritsi dira jaiak. Otabak ospatzen dituzte han, eta bihurtik astelehenera bitartean ekitaldi ugari egongo dira: ume, gazte zein nagusiagoengan pentsatutako egitaraua prestatu dute.

Bihar, zapatua, hasiko dira Otaba jaiak: 17:00etan, hain justu ere, etxafuego jaurtiketarekin eta kanpai hotsarekin. Horren ondoren, umeendako jolasak egongo dira, eta 18:00etan, berriz, herri txokolate-jana. Azkenik, eta zapatuko jaiegunari amaiera biribila emateko, bertso afaria egongo da Ixaun sagardotegian, Joxe Agirre eta Amets Arzallus bertsolarietara. Bestalde, Lutxurdio eta Aitziber trikitilariak ere han izango dira giroa gehiago alaitzeko.

DOMEKAN HERRI KIROLAK

Etzi, domeka, 11:15ean hasiko dira ekitaldiak, Lutxurdio eta Aitziber trikitilarien doinuarekin.

Horren ondoren, 12:30ean, meza nagusia egongo da, eta 13:15ean, pilota partiduak.

Bazkaldu ondoren, 17:00etan, herri kirolen erakustaldia egongo da. Erakustaldi horretan, Azurmendi eta Txapartegi aikolariek eta Goenatxo eta Elosukorta harri-jasotzaileek hartuko dute parte.

ASTELEHENEAN JAN-EDANA IZANGO DA NAGUSI

Astelehena Otaba jaien azkeneko eguna izango da. Eguerdian hasiko dira ekitaldiak: 13:00etan, auzoko hildakoen aldeko meza egongo da, eta elizkizunaren ondoren, salda eta txorizoa hurre-ratzen diren guztiendako. Horrekin batera, Laja eta Lutxurdio trikitilarietara giroa alaituko dute. 15:00etan, auzo bazkaria egongo da Elurmendi elkartean; eta 20:30ean, berriz, auzo afaria izango da.

Azkenik, 12:00etan, errifaren zozketa egingo dute elkartean batutakoek.



ARTIBIDA

Astelehenean auzo bazkaria izango da Elurmendi elkartean.

LABUR

Merkatarien ordutegira egokitutako Internet ikastaroak emango dituzte KZGunean

Merkatarien ordutegira egokitutako 20 orduko Internet ikastaro bi antolatu ditu KZGuneak: bata ekainaren 16tik 30era izango da, 08:00etatik 10:00etara; eta, bestea, ekainaren 30etik uztailearen 11ra, 14:00etatik 16:00etara.

Izena emateko epea zabalik dago, KZGunean edo 943 76 73 24 telefono zenbakian.

GABILONDO
INMOBILIARIA

Etxebizitzak, garajeak, lokal komertzialak, baserriak, lur sailak...

Burdiñate BERGARA Tel.: 646 665 854
San Frantzisko 51, 1-D ELGOIBAR Tel.: 943 74 44 67

**Aldoka
Maldoka**

TABERNA

Kruz Gallastegi
BERGARA

**JOXAN
ARRAINDEGIA**



Ibargarai 24. Bergara. Tf. 943 76 70 29

INGURUMENA/ Osintxun dagoeneko hasi dira hodiak sartzeko eta Masterreka kalea astelehenean itxi egingo dute, han ere hodia sartzeko

Herriko ur zikinak jasoko dituen kolektorearen hodiak hasi dira sartzeko

MONIKA BELASTEGI

Hamabi kilometro hodi inguru sartuko dute lur azpian, eta hodi horien zeregina herriko ur zikinak jasotzea izango da, Mekolaldeko araztegiara bideratzeko. Kolektoreko hodiak sartzeko dituztenean, ur zikinaren %90 jasoko dute. Egun, Deba ibaira isurtzen dugu hori guztia.

Hori da, hain justu ere, kolektorearen helburua: Deba ibaiaren biziberritzea. Orain dela zortzi urte, 1995ean, uren saneamendua egiteko oinarri teknikoak azaltzen zituen txosten bat aurkeztu zuen Gipuzkoako Ur Partzuergoak. Saneamendua egiteko, alde batetik, kolektore sare bat eraiki beharra azaldu zuten, eta, bestetik, araztegi edo depuradora bat jarri beharra. Hori horrela, kolektorea eraikitze proiektua lehiaketara atera eta gero, Bilboko Fulcrum enpresari esleitu zioten 1996an. Enpresa horrek, berriz, 2000ko ekainean aurkeztu zuen proiektua, eta Udalak aztertu eta gero eta lanak esleitu ondoren, dagoeneko hasi dira hodiak sartzeko.



MONIKA BELASTEGI

Orain dela gutxi Osintxun hasi ziren kolektorearen hodiak sartzeko. Lehenengo faseko lanei dagokien Osintxutik Mekolalderainoko tartea.

HIRU FASE, HIRU TARTE

Kolektorearen hodiak sartzeko lanak hiru faseetan banatu dituzte eta fase horietako bakoitzak herriaren tarte bati dagokio: lehenengo fasea, Osintxutik Amillagako gasolinera pareraino da; bigarrena, gasolineratik Bideberri, San Juango adarra barne; eta hirugarrena, Bideberritik, Ibarraino. Hamabi kilometro inguru dira, eta tarteetako bakoitza enpresa ezberdin bati esleitu diote.

Osintxun orain dela gutxi hasi dira lanak lehenengo faseari dagokio-, eta astelehenean Masterreka kalea zulatzen hasiko dira bigarren faseari dagokio-. Izan ere, kolektorearen lanak hiru faseetan banatu dituzten arren, aldi berean egingo dituzte, eta lanok hemezortzi hilabete inguru iraungo dutela aurreratu du Bergarako Udalak.

TRAZAKETA IA OSOA HERRIAN BARRENA EGINGO DUTE

Kolektorea lur azpian sartuko dute, tokiaren arabera sakonera handiagora edo txikiagora. Bestalde, trazaketari dagokionez, ia ibilbide osoan barrena errepide azpian sartuko dute, Udaleko iturrien esanetan, eta horrek eragozpen bat baino gehiago eragingo du herritarren artean. Udaleko iturriek gehitu dutenez, herri batzuetan erreka bidea aprobetxatu dute kolektorea sartzeko. Bergaran, baina, ibaiak ez da oso zabala, eta uholdeak ekiditeko asmoz ez dute ibaiaren bidean sartuko hodirik; izan ere, kolektorea

Hamabi kilometro hodi inguru sartuko dituzte Bergarako ur zikinak jasotzeko

Kolektore sarea abian jartzen denean, herriko ur zikinaren %90 jasoko du

Astelehenean hasiko gara lanen lehen ondorioak sumatzen, Masterreka itxen dutenean

Kolektorea faseka

- 1. FASEA:**
Mekolaldeko araztegi-
San Lorentzoko industrialdea
eta Osintxuko adarra

 - Luzera: 3,10 km
 - Enpresa eraikitzailea: Altuna y Uria SA
 - Aurrekontua: 4.057.327 euro
 - Egiteko epea: bederatzita hilabete
- 2. FASEA:**
San Lorenzo industrialdea-
Bideberri
eta San Juan adarra

 - Luzera: 3,95 km
 - Enpresa eraikitzailea:
Tecsa Empresa Constructora SA
 - Aurrekontua: 6.305.805 euro
 - Egiteko epea: hamar hilabete
- 3. FASEA:**
Bideberri-Ibarra

 - Luzera: 5,20 km
 - Enpresa eraikitzailea:
Construcciones Adolfo Sobrino SA
 - Aurrekontua: 6.412.002 euro
 - Egiteko epea: hamasei hilabete eta erdi

Masterreka itxita

Astelehenean, hilaren 23an, hasiko dira Masterreka kalean kolektorearen hodiak sartzeko lanak. Hori dela eta, itxi egingo dute kalea ibilgailuendako, eta hiru hilabetez egongo da itxita. Horren ondorioz, Elosura edo Bolu aldera doan zirkulazio guztia Artekaletik desbideratuko dute. Eta handik datorren zirkulazioa, berriz, Barrenkaletik irten beharko da. Horrekin batera, eta Udaltzaingoa ohartarazi duenez, Artekaletik eta Elosurako bidean dauden baserrietara kamioi handiekin joateko Azkoititik egitea gomendatu dute, kale horietatik pasatzeko arazoak izan daitezke-eta.



sartuta are gehiago estutuko litza-teke erreka.

Hala eta guztiz ere, trazaketaren punturen baten, erreka nahiko zabala den punturen baten, San Antonion, esaterako, ibaian barrena sartuko dutela aurreratu dute.

HERRIKO UR ZIKINAK BIDERATU ETA ERREKARA GARBIAGO ISURTZEKO ERA

Bergarako ur zikinak jasoko dituzte kolektoreak: kolektore edo hodiak nagusi bat egongo da, eta bigarren mailako kolektore edo hodiak sare bat ere bai. Hain zuzen ere, bigarren mailako kolektore sarearen lana da etxetatik eta lantegietatik datorren ur zikina kolektore nagusira bideratzea. Kolektore nagusiaren kasuan, bigarren mailako kolektorearekin lotuta egongo da herriko hainbat puntutan, eta haren lana da ur zikinok jasotzea eta Mekolaldeko araztegiara bideratzea. Gero, han, garbitu eta berriz Deba ibaira jaurtitzeko.

Udaleko iturriek azaldu dutenez, herriko ur zikinaren %90 jasoko du kolektoreak. Gaur egun, hori guztia Deba erreka doa zuzenean, eta Foru Aldundiak Gipuzkoako ibaien uraren kalitatearen gainean egindako ikerketak baten arabera, lurralde historikoko ibai kutsatuena da Deba.

Araztegiari dagokionez, oraingoz aurreproiektua besterik ez dago eginda. Dena dela, Bergarako Udaleko iturriek adierazi dutenez, kolektorea eraiki bitartean araztegiaren proiektua eginda egongo dela uste dute, baita lanak hasita ere.



SHÜRRER BERGARAN

Gabi Shürrer Realeko jokalaririk argentinarra Umore Ona elkartean afaltzen egon zen ekainaren 4an (eguztana). Bergaran bizi den Diego Ardoain herrikideak egin zion gonbidapena Shürrerri, eta 15 laguneko taldetxo bat zen Umore Onan mahai baten bueltan. Shürrer martxoan lesionatu egin zen eta ordutik hona ez du berriro jokaterik izan. Hala ere, Realean oso gustura ibili dela eta Donostian primeran hartu dutela esan zien Bergarako lagunei. Era berean, Realeko hainbat oroigarri ekarri zituzten Shürrerrek, eta hark Bergarako erreleioak eta tostoak eraman zituen etxera. Primeran afaldu ondoren, liga irabazteko konfiantza osoa duela esan zuen Shürrerrek. Domekan Realak Vigon galdu eta gero liga eskuratzea gaitzagoa da, baina ez dugu itxaropenik galduko, ala? Asier Lazkanok bidalitako argazkian, Shürrer lagun bergararrekin.



GURE AMETSAKO SUKALDARI FINAK

Joan den egubakoitzean, San Antonio egunean, Gure Ametsa elkartekoek luntxa eskaini zieten San Joxepeko abesbatzakoei. Betiko moduan Gure Ametsako taldetxo hori fin-fin ibili zen sukaldari eta zerbitzari lanetan. Urtetik urtera huts egiten ez dutenak hauek dira: Donato Ormazabal, Rosi eta Margari Etxeberria, Marian Agirrebeña, Lucia Farrás, Itziar eta Amaia Ibartzabal, Maria Pilar Larrañaga eta Pedro Rico. *Chapeau!!!*

JARDUNEN OLINPIADAK



AZKEN TXANPA!

Olinpiadetako azken jardunaldia jokatu da bihar, zapatua. Sukaldaritza Lehiaketa jokatu da 12:30ean, eta talde bakoitzak 6-8 lagunendako entsalada gertatu beharko du. Gero, bazkaria egingo dute, eta 16:00etan sari banaketa. Irabazleek egun baterako bidaia eskuratuko dute. Saillkapena: 1-Marrazoak, 2-Tutukiak, 3-Gorridunak, 4-The Scorpions, 5-Porki Txerriak, 6-Sorbandurriatarrak, 7-San Martintxo taldea, 8-Alperrak, 9-Funkiak, 10-Chipitren, 11-Orbea, 12-Arrano Beltza, 13-Rap Boyak, 14-Aupa Gu.

OGIZUN

koop. elk.
okindegia



Ibargarai 44-46
BERGARA
943 76 45 53

Zubillaga 10
OÑATI
943 78 24 13



Markogintza tailerra

Espoloia 4, BERGARA
943 76 11 68

IRURAK MARGOAK


DISEINUA, S.L.

Era guztietako lanak
Moketa eta sintasola
Iztuku esponjatua

Paper pintatuak
Harea zorrotada
Iztuku faltsua

Aitziturri 6 • 95 posta kutxa • 20570 Bergara
Telefonoak: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984
Faxa: 943 76 09 32

MINGAINARITIRAKA



Andoni Berraondo

URRATS TABERNAKOA

Ostalaritza ikasketak egin zituen Andonik (23 urte) eta hainbat tokitan izan da lanean, Marbellan, Saloun, Formigalen edo Madrilan esaterako. Orain dela lau hilabete Urrats taberna hartu zuen eta han dabil zerbitzari lanetan.

Zure laneko gauzarik onena? Eta txarrena?
Onena, jendearekin daukadan tratua. Txarrena, ordutegia. **Gizon ala emakume gehiago ibiltzen da tabernan?**
Gizon gehiago etortzen dela esango nuke.

Txikiteoak behera egin du?
Ez dakit ba. Ez dut egin denbora asko lanean, baina ibiltzen dira koadrilak txikiteoan.

Tabernako lanik txarrena? Eta atsegina?
Txarrena, kamarak betetzea eta kafe-makina garbitzea. Atsegina, zerbitzatzea.

Zein da gehien zerbitzatzun duzun edaria?
Ardo beltza.

Lanbidez aldatzekotan zer izan nahiko zenuke?
Sukaldaria.

Zure espezialitatea?
Postreak egitea atsegin dut gehien: euskal tarta, adibidez.

Janari eta edari bana?
Albondigak eta laranja Kasa.

Aisialdian zer egitea gustatzen zaizu?
Lagunekin irten, etxean pelikularen bat ikusi...

Film bat? Musika talde bat?
La lista de Schindler filma asko gustatu zitzaidan. Musika denetik entzuten dut: Linkin Park asko gustatzen zait.

Udan, igerilekua ala hondartza?
Nahiago dut hondartza. Zarautzera asko joaten gara.

Aste bukaerarako plan ideala?
Udan, kostaldeko herriren batera lagunekin joan arratsaldetik eta han buelta bat eman gauean.

Parranda zalea zara? Parrandarako toki bat?
Noizean behin gustatzen zait parranda egitea. Donostiako giroa ondo dago.

Zeinek irabaziko du liga?
Zaila dauka baina ea Realak irabazten duen...

Bidaia bat nora egingo zenuke?
Kenya.

EDU MENDIBIL

NIREBIDAIAHURA / Salva González

SRI LANKA ETA MALDIVAK / 2003ko maiatzean

Sri Lanka Indiako hegoaldean dagoen herrialdea da. Gidari baten laguntzarekin sei egunez ibili ginen herrialdea ezagutzen eta batez ere Sri Lanka erdialdean, barrualdean, mugitu ginen. Budistak gehiengo dira Sri Lankan eta horrez gain hinduistak, musulmanak eta anglikanoak ere badira. Erlijioak baino bizitzeko filosofiak direla esango nuke, ez daukate inolako betebeharririk erlijioarekiko, nolabait esateko ez daude hain lotuta eta alde horretatik aske bizi den jendea dela iruditu zitzaidan. Benetan oso jende atsegina da hangoa, primeran hartu gintuzten toki guztietan eta mirestekoa da zer-nolako patxadarekin bizi diren. Autoan gindoazela, errekan sartuta, hortzak garbitzen ziharduen gizon bat ikusi genuen eta irudi hura grabatuta geratu zitzaidan.

Herrialde pobrea da Sri Lanka, oraindik ere garatzeko dagoena, eta kontraste handiak ikusten dira: esaterako, oihanean, txabola baten barruan telebista ikusten zegoen familia bat ikusi genuen. Bestalde, klase sozialak ondo bereizten dituzte Sri Lankan, kasten sistema indarrean dago eta kolonialismoaren garaiko eragina nabaria da oraindik.

Natura aldetik oso herrialde aberatsa da. Errepidean zoazela, animaliak topa ditzakezu eta gida-



“Natura aldetik oso herrialde aberatsa da Sri Lanka eta hango jendeak ere harrিতuta utzi gintuen”

“Bidaiaren azken egunak Maldivetan eman genituen, paradisuoko tokia benetan”

riek errespetu handia diete bidean topatzen dituzten iguana, tximino eta bestelakoei. Hango arbolak ere ikustekoak dira: esate baterako, izugarriko sekuoiak ikusi genituen, zortzi lagunek besoekin inguratuko ez lituzketenak. Banbu izugarri altuak ere topatu genituen.

Colombo hiriburuan ez ginen izan, nahiago izan genuen herri txikiagoak ikustea. Lehengo Ceilaneko hiriburua izan zen Polonnaruwa bidean, han arroz-plantazioak ureztatzeko ohikoak diren laku artifizial bat ikusi genuen. Mineriya izeneko oihanean egin genuen safarian, elefanteak, dortokak eta era guztietako hegaztiak ikusi genituen eta, besteak beste, Danbulla, Anuradhapura eta Sigiriya yako tenpluak bisitatu genituen. Sigiriya oso tenplu sakratu garrantzitsua da beraiendako, V. mendekoa eta hara heltzeko 1.290 eskailera daude.

Bidaiaren azken egunak Maldivetan eman genituen. Paradisuoko tokia benetan. Sri Lankatik abioian ordu eta erdira daude Maldivak eta urpean ibiltzeko toki ezin hobea da. Itsasoko ura garbi-garbi dago eta gu izan ginen Madoogali irla gomendatzekoa da. Toki zoragarria, ametsetan ikusten den horietakoa.

EDU MENDIBIL



Salva González, Kontxi Galiot eta Salvaren emaztea, Antonia Galiot, elefante batekin jolasean.

ARDATZA
Brikolajea

Ateak eta zokaloak	Koadroak markoan ipini
Horma-armairuak	Era guztietako moldurak
Sarrailak	Apalak
Heldulekuak	Kaxoiak

Masterreka, 4-behea. Bergara. 943 76 18 93

Plater konbinatuak
Oilasko erreak eramateko




Simon Arrieta plaza 2A behea ezkerre.
Tf. 943 76 71 19



GAZTELU
BURDINAKI DENDA

Mintegi, 1 • Tf. 943 76 32 48 / 943 76 34 50 • BERGARA



Zabaletak Euskadiko Txapelketaren barruan jokaturako bi probak irabazi ditu, San Cosmen eta Gorlan.

MOTORRA

Aitor Zabaletak bere nagusitasuna azaldu zuen Gorlako Igoeran

Begararrak ia 10 segundoko aldea atera zion Jesus Santamariari

EDU MENDIBIL

Aitor Zabaletak erraz irabazi zuen zapatuan jokaturako Gorlako Igoera. Vilariñok eta Egozkuek ez zuten parte hartu, eta Zabaletak ez zuen bere neurriko aurkaririk izan. Errekorra lortzerik izan ez zuen arren, ia 10 segundo atera zizkion Santamariari.

Aitor Zabaletak (Lola BMW) 2 minutu, 29 segundo eta 38 ehuneko denbora egin zuen Gorlan, eta alde dezente atera zion

bigarren sailkatu zen Jesus Santamariari (2:39:14). Hirugarren postua, berriz, Josu Ugartek (PRM) lortu zuen, 2:43:80 denborarekin. Honenbestez, oraindik ere Pantxo Egozkue gidari nafarrak 1993. urtean lortu zuen errekorrak (2:21:62) indarrean segitzen du.

Guztira 53 gidarik hartu zuten parte zapatuan, baina horietatik 47k lortu zuten proba amaitzea. Iñigo Almortza begararrak (Opel Kadett automobilarekin) ez zuen lasterketa bukatzerik izan.

IKUSLE BAT ZAURITUTA

Zapatuan, Josu Ugarte gidariak ikusle bat harrapatu zuen Ugarrixa baino lehen, eta ospitalera eraman behar izan zuten, hanka bat apurtuta zuen-eta. Antolatzailen arabera, 3.000 ikusle egon ziren zapatuan Gorlako aldapetan. Gorlako Igoeraren 13. aldia Euskadiko Txapelketarako proba puntuagarria zen. Zabaletak orain arte jokaturako bi probak irabazi ditu. Hurrengo proba Sopuertako Muñecas mendatean jokaturako da, uztailearen 26an.


Toledo, bigarren, Espainiako Pisu Jaurtiketa Txapelketan

E.M.

Agustin Toledo begararrak zilarrezko domina lortu zuen, pisu-jaurtiketan, Bartzelonan jokatu zen Gutxituendako Espainiako Atletismo Txapelketan. Pisu-jaurtiketa proban partaideek bi kiloko bola bat jaurti beharra zeukaten eta Toledok 4,12 metroko jaurtiketa egin zuen. Horri esker, zilarrezko domina lortu zuen. Agustinek 40 urte ditu eta behin baino gehiagotan izan da Espainiako atletismo txapelketetan. Orain lortutako bigarren postuarekin pozik azaldu da, ekainaren 6an eta 7an Bartzelonako Espainiako Txapelketan maila handia zegoela esan digu-eta.

Bestalde, astebete lehenago, Granadan jokaturako Espainiako Boccia Txapelketan ere izan zen Toledo. Miguel Angel Gómez eta Amagoia Arrietarekin batera, laugarren postuan sailkatu zen. Petankaren antzeko jokoa da boccia, eta gutxigatik ez zuten lortu Toledok eta haren lagunek brontzezko domina.

Aritz Bikuña begararrak, berriz, Nerea Egañarekin eta Arkaitz Zabalarekin batera jardun zuen Espainiako Boccia Txapelketan, baina ez zuten ligaxka pasatzerik izan eta ez ziren, beraz, onenen artean sailkatu. Espainiako Slalom Txapelketan bestalde, zazpigarren tokian sailkatu zen Bikuña, Alacanten.



Agustin Toledo eta Aritz Bikuña martitzeneko entrenamenduaren aurretik.

Ariznoako gimnastak onenen artean Euskadiko Txapelketan

E.M.

Ariznoa Gimnasia Erritmiko Taldeko gimnastek emaitza bikainak lortu zituzten joan den ekainaren 8an Donostiako Benta Berriko kiroldegian jokaturako Euskadiko Txapelketan.

Irati Arteaga bigarren sailkatu zen A mailako kadeteen artean eta B mailako kadeteetan Virginia Odriozolak lortu zuen lehen postua eta Maddalen Legorburu, berriz, hirugarren postuan

sailkatu zen. Bi saio egin zituzten, uztaiarekin eta mazoekin, hain zuzen ere.

Gazte mailan Uxue Arregi izan genuen onena, Maddalen Toledo hirugarren postuan geratu zen eta Iratitz Gastiainek bosgarren postua eskuratu zuen.

IKASTURTE BUKAERAKO JAIALDIA GAUR
Ariznoako gimnastek ikasturte bukaerako erakustaldia egingo dute gaur, egubakoitza, Labegaraletako kiroldegian, 18:00etan.

FOTOKIROLA



Ziklismozaileen irteera uztailearen 12an Neilako Lakuetara

Begarako Txirrindulari Elkarteko lagunek Neilako Lakuetara (Soria) irteera egingo dute datorren uztailearen 12an. Neilako Lakuen inguruan 80 kilometro inguruko ibilbidea egingo dute. Goizean irtengo dira, autobusean, eta iluntzerako itzuliko dira Begarara. Irteeran parte hartzeko gogoia dutenek Biciprecision Igartua edo I2 kirol dendetan eman dezakete izena.



Ariznoako neskek denboraldi bikaina egiten dihardute.



Euskadiko eta Saharako betaranoek bina egin zuten Auser herrian jokaturako partiduan.

FUTBOLA

Juaristi eta Larrañaga Saharan izan dira Euskadiko betaranoekin

Saharrekin harremanak sendotzeko han jokatzeko gonbidapena jaso zuen Euskadik

E.M.

Saharako herrialdearen eta Euskal Herriaren arteko harremanak sendotzeko asmoz, Euskadiko betaranoen mailako futbol selekzioak partidua jokatu zuen Auser-en, Tindouf-etik gertu. Fernando Juaristi eta Jesus Mari Larrañaga bergararrak han izan ziren.

Fronte Polisarioaren sorreraren 30. urtemuga bete zela-eta, Euskadiko betaranoen mailako futbol selekzioak Saharan jokatzeko proposamena jaso zuen. Hasieran Realeko betaranoei egin zieten eskaintza, baina Jaurlaritzaren erantzunak ez ziren onak, Euskadiko Selekzioa osatu zuten eta Auser izeneko herrian jokatu zuten maiatzaren 20an. Fernando Juaristi eta Jesus Mari Larra-

ñaga Realeko betaranoen mailako taldean dabilta, eta Saharara joan ziren Manu Urbietta, Andoni Imaz, Ritxi Mendiguren, Jokin Uribe, Roberto López Ufarte eta beste hainbatekin batera.

Juaristik esperientzia guztiz aberasgarria izan dela dio: "Benetan oso baldintza eskasetan bizi dira, 29 urte daramatzate basamortuan, ez daukate ezer, eta, hala ere, primeran hartu gintuzten. Umeen aurpegiak graba-

tuta geratu zitzaizkigun. Gizon gutxi dago, eta emakumeak dira familia aurrera ateratzen dutenak". Euskadiko futbol selekzioarekin batera, Estatuko hainbat gobernuz kanpoko erakundetako ordezkariak izan ziren sahararrei elkartasuna adierazteko. Esaterako, SEADen Lagunen Elkartearen dabilen Xabier Errasti bergararra ere Auserren izan zen.

GABONETAN, ITZULIKO PARTIDUA

Euskal Herriaren eta herrialde saharararen arteko loturak indartzeko helburuarekin, baliteke Gabonetan itzulerako partidua jokatzeko San Mamesen.

Esan bezala, Larrañagak eta Juaristik Realeko betaranoekin jokatzeko dute. Domekan, Jokin Aginaga zenaren oroimenez, Eibarko betaranoen aurka jokatu dute Billabonan, 10:00etan.

"Ez daukate ezer, eta umeen aurpegiak grabatuta geratzen dira"

FERNANDO JUARISTI

Juanjo Arrieta eta Javi Pérez, Eibarko entrenatzaile berriak


E.M.

Juanjo Arrieta bergararrak eta Javi Pérez eibarrak zuzenduko dute Eibar futbol taldea ligako azken jardunaldietan. Eibarko Kontseiluak Blas Ziarreta kaleratu ondoren, Pérez-Arrieta bikoteak izango du taldea jaitsiera postuetatik ateratzeko ardura.

Zapatuan Sportingen aurka bana egin ondoren, jaitsiera postuetan dugu Eibar, sailkapeneko 20. tokian, 44 punturekin. Aurretik Leganes (48 puntu), Terrassa (48), Kordoba (46), Ferrol (46) eta Almeria (46) daude eta atzetik, berriz, dagoeneko maila galdu duten Oviedo (40) eta Badajoz (38). Taldearen egoera larria ikusirik, Eibarko Kontseiluak Blas Ziarreta entrenatzailea kaleratzea erabaki zuen domekan, eta Pérez-Arrieta bikoteari eskaini zion taldea zultatik ateratzeko ardura. Javi Pérez Eibarko idazkari teknikoa da eta Bergara taldeko jokalaria eta entrenatzaile izan zen. Juanjo Arrieta, berriz, aski ezaguna da Eibarren: haren eskutik taldea 2.B mailara igo zen 1984-85 denboraldian eta gaur egun

Eibarko Kontseiluko kide da. Gaztetan Bergara, Eibar, Alaves eta Mondra futbol taldeetan jokatu zuen eta gero, Bergara, Urola, Eibar eta Aretxabaleta entrenatu zituen.

Zera esan du Juanjok: "Bi partidutan ezin da aldaketa handirik egin, eta jokalarien moralak hobetzea da gure lehen helburua. Zaila den arren, itxaropentsu gaude, eta zapatuko Leganesen aurkako partidua erabakigarria izango da". Ligako azken partiduan Eibarrek Albacete hartuko du Ipuruan.



Juanjo Arrieta.

Igeri Elkarteko gaztetxoak, sasoi onean udari begira

E.M.

Nielka Iburguren eta Mikel Labaka igerilariak emaitza aipagarriak lortu zituzten Gipuzkoako Eskola Arteko Txapelketan. Ordizian: 100 metroko bular estiloan bosgarren, 200 metroko bular estiloan seigarren eta 200 metroko bizkar estiloan zazpigarren sailkatu zen Nielka. Eta Mikel Labaka 200 metro lau estiloetan laugarren eta 100 metroko tximeleta estiloan bosgarren izan zen.

Bestalde, Euskadiko Eskola Arteko Jokoaetan, Arrasaten, Nielka Iburguren 12. izan zen 100 metroko bular estiloan proban eta 200 metroko bular estiloan 13. sailkatu zen. Mikel Labakak 14.

postua lortu zuen 100 metroko tximeleta proban eta 200 metro lau estiloetan 15. sailkatu zen.

GIPUZKOAKO TXAPELKETAN

Infantil mailako Olatz Fernández, Elisa Kortabarria, Jone Amasorrain eta Ana Balentziaga igerilariak Gipuzkoako Txapelketan hartuko dute parte aste bukaeran, Azpeitian. Amaia Andueza Bergara Igeri Elkarteko entrenatzailea baikor da: "Kanpoko igerileku txikia estali zutenetik hona gauzak hobera joan dira, eta orain ez daukagu kanpora entrenatzerara joan beharrik. Poliki-poliki, eta udako denboraldiari begira, igerilariak euren sasoi puntu onena berreskuratzen dihardute".

IPINTZAKO FUTBOL TXAPELKETA		
PARTIDUAK		
EGUBAKOITZA 20 Neskak, Senior maila 20:00: Potzu Ta Zapaburuak-Ogizun 20:00: Baztangak-Plaut 21:00: Arrano-A Willy Willy 21:00: Antzuola-Pentol's Team	ASTELEHENA 23 Neskak, A maila 17:15: Finalerdia 18:00: Finalerdia Futbol 11 19:00: Mongatxurak-The Parpol	EGUENA 26 Beteranoak 19:30: Txipiron-Ezinleike 19:30: Bildurbarek-Guipuzcoana 20:30: Mongatxurak-A Ze Flaxa 20:30: Arloteak-Canalejas
ZAPATUA 21 Futbol 11 09:00: Ilari-Osintxu 10:00: Bildurbarek Opel Lam-Beti K.A.B. 11:00: A Ze Flaxa Guipuzcoana-Gorriones 12:00: Ska Libur-Altos Pornos	MARTITZENA 24 Futbol 11 19:00: Komando Piperrak-Arloteak 20:00: Fo Fo Fo-Mongitxurak 21:00: Txokokuak-Angiola	EGUBAKOITZA 27 Neskak, A maila 18:00: 3. eta 4. postua 18:45: Finala Neskak, Senior maila 20:00: Antzuola-A Willy Willy 20:00: Arrano-Plaut 21:00: Ogizun-Baztangak 21:00: Ou Pitxu Ou!-Potzu ta zapaburuak
	EGUAZTENA 25 Futbol 11 19:00: Aristoi-Indar Gorri 20:00: La Juve-Drink Team 21:00: Gore-Torrekua	



Igeri Elkartean 40 lagun inguru dabilta aurtengo denboraldian.

Irudian Ispilu taldeko lau kide *El cadaver del señor García* antzezlanaren une baten.

ISPILU TALDEA

Donostiako Zuloaga auzoko Helduen Heziketa Iraunkorreko antzerki taldea da

Ispilu antzerki taldearen emanaldia bihar Zabalotegin

MONIKA BELASTEGI

laz ere ikusi ahal izan genuen herrian Ispilu taldea, azaroan. Donostiako Zuloaga auzoko Helduen Heziketa Iraunkorreko eskolaren baitan sortutako antzerki taldea da Ispilu. Bihar, zapatua, Enrique Jardiel Poncelaren *El cadaver del señor García* egingo du.

Orain dela sei urte sortu zuten Ispilu taldea. HHIko irakasle batek jarri zuen abian, helburu garbiarekin: ikasleek HHIko Antzerki Eskolan jaso eta ikasitakoak praktikara eramatea eta

jendaurrean eskaintzea. Antzerki taldea bultzatu zuen irakasle hori Yolanda Guillen bergararra da, eta, horrez gain, antzerki taldearen zuzendaria ere bada.

Orain dela sei urte sortu zeneetik hona, antzerki taldeak urtero-urtero prestatu izan du lanen bat. Azkena bihar Zabalotegi aretoan egingo dute: Enrique Jardiel Poncelaren *El cadaver del señor García*, hain justu ere. Emanaldia 19:00etan izango da.

HAMABOST AKTORE ETA ISTORIO KORAPILOTSUA

Emanaldian hamabost lagunek hartzen dute parte, eta Madrilen,

dirudun batzuen etxeko egongelan, dibanean etzanda, pertsona bat azaltzen denetik aurrera gertatuko direnak kontatuko dituzte. Dibanean etzanda azalduko pertsona hori ez dakite bizirik edo hilda dagoen. Etxeko nagusiak ez du ezagutzen; are gehiago, ez du inortxok ere ezagutzen, eta etxeko nagusiaren senargai urduritzen joango da; izan ere, Valladolidetik etorri da harekin ezkontzeko... Horrela, emaztegaiak -Hortensiak- ezezagunarekin zerikusiren bat duela pentsatuko du, eta Hortensiak guztiz ukatuko du hori. García jaunak, bestalde, semearen bila dihardu.

Zeramika taldeak erakusketa irekiko du gaur, egubakoitza

MONIKA BELASTEGI

Simon Arrieta zeramika tailerrak zeramika erakusketa antolatu du. Gaur zabalduko dute, kultura etxean, eta tailerreko 11 laguneren lanak egongo dira ikusgai. Erakusketa 29ra arte egongo da zabalik.

Simon Arrieta zeramika tailerrean diharduten lagunek egindako lanak ikusteko aukera eskainiko du erakusketak. Hamaika lagunek hartuko dute parte eta hainbat lan egongo dira ikusgai. Askotariko teknikekin egindako

eskulturak eta zeramikak egongo dira ikusgai: besteak beste, esmalteak, oxidoak eta kristala. Batez ere lan berriak eramango dituzte erakusketara, ikasturte honetan barrena egindakoak, hain zuzen ere.

EKAINAREN 29RA ARTE IKUSGAI

Gaur irekiko dute erakusketa, 19:00etan, kultura etxean, eta ekainaren 29ra bitartean egongo da ikusgai, honako ordutegian: astelehenetik egubakoitzera, 18:00etatik 21:00etara; eta zapatuetan eta jaiegunetan, berriz, 12:00etatik 14:00etara.

LABUR


'Lau anaia umezurtza' umeendako antzerkia gaur, egubakoitza, Munibe plazan, 17:00etan

Ekitaldia Jardun elkarteak antolatu du eta Kultur Errotaren barruan dago. Titere, txotxongilo edo kurrinoen munduan sartzen gaituen emanaldia da. Istorioak kontatzen duenez, lau anaia bizi diren baserria gainbehera doa, eta horren ondorioz, lanbide berri bana ikastera behartuta daude. Anaiez gain, printzesa bat ere azalduko da istorioan: Ohianeder printzesa. Nahiko asperturik bizi da, baina egun baten herensugearen bisitaldia izango du. Hortik aurrera emozio, sentiberatasun eta akzioa etorriko dira.

Asier Altuna 'Kixi'-k Huescako Zinema Jaialdiko sari nagusia jaso zuen domekan

Asier Altuna *Kixi*-k Huescako Zinema Jaialdiko *Danzante de Oro* sari nagusia jaso zuen domekan. *Topeka* film laburrarengatik eman diote saria epaimahaiko kideek, aho batez, eta sari gisa 6.000 euro jaso ditu.

Topeka Altunaren azkeneko film laburra da. Joseba Sarrionandiaren idatzi baten oinarrituta dago, eta aharijokoa ikusten diharduten hainbat laguneren artean gertatzen direnak kontatzen ditu.

Asier Altuna *Kixi*.

Literatura Lehiaketako sariak banatu dituzte

MONIKA BELASTEGI

Zapatu eguerdian Koldo Eleizalde Literatura Lehiaketako sariak banatu zituzten Zabalotegi aretoan. Udaleko Euskara zerbitzuak antolatzen du lehiaketa hori, eta aurreko hemezortzigarren aldia izan da. Lehiaketa adinaren arabera bost ataletan banatuta egon da, eta 509 lagunek hartu dute parte.

Epaimahaiari dagokionez, honako hauek osatu dute: Juan Martin Elexpuruk, Miguel Angel Elkoroberezibarrek, Esteban Antxustegik eta Udaleko Euskara Zerbitzuko teknikari batek.

Epaimahaiko kide horien iritziz, ipuinen maila beste urte batzuetakoaren antzekoa izan da eta bada maila oneko lanen multzo polit bat. Irabazleak hauek izan dira: lehen mailan, Uxue Lazkano, Ainhoa Etxeberria eta Maddi Txintxurreta; bigarrenean, Ane Barragan, Ane Muruamendiaren eta Ane Etxaniz; hirugarrenean, Idoia Larrañaga, Josu Iñarra eta Josu Irizar; laugarrenean, Hiart Bolinaga, Miren Aranguren eta Ane Elortza; bosgarrenean, Garazi Olabarria, Natalio Juaristi, Jaione Yera eta Maddi Larrañaga; eta olerki sailan, Josu Arantzabal.



Irudian lehiaketako irabazleak, saria jaso ondoren ateratako talde argazkian.

EUSKARA ZERBITZUA

GUREGAIK/ GAZTEEN ALDIZKARIA

'Astindu' fanzinearen 9. zenbakia, kalean da

AINTZANE IRIZAR

Aurreko martitzenean banatu zuten Gazte Asanbladako kideek Astindu fanzinearen bederatzigarren zenbakia. Izan ere, segituan agortu ziren gazteok herriko jaietarako argitaratutako aleak.


Adierazpen askatasuna irakur dezakegu bederatzigarren zenbakiaren azalean. Barruan, baina, askotariko gaiak, albisteak, hainbat talderen hausnarketak eta gutunak topatuko ditugu.

Urtarrilean argitaratu zuten zortzigarren zenbakia. Eta arrazoi bat baino gehiago dago ordutik hona zenbakirik ez argitaratzeko: batetik, urtarrileko zen-

baki berezi hura prestatzeak lan handia eman zien, eta atseden hartzeko gogoz zeuden, normala denez. Gogora ezazue herriko musika talde guztien informazioa batu zutela zenbaki hartan, eta horrekin batera CD bat argitaratu zuten taldeon abestiek.

Bestetik, maketazio ikastaro baten jardun dute *Astindu*-koek; Benito Canterok eman die ikastaro hori.

Azkenean, baina, kaleratu dute bederatzigarren zenbakia, eta sekulako arrakasta izan du, gainera. Pazkoetarako argitaratu zuten, eta guztiak agortu zirenez, berriro argitaratu dute, eta martitzenean banatu zituzten. Ohiko tokietan topatuko dituzue *Astindu*-ren aleok.



Herriko jaietarako argitaratu zuten 9. zenbakia, eta ale guztiak agortu ziren.

LOTSABARIK/ Izaskun Arrese

"Alaia naiz, baita marizoro samarra ere"

AINTZANE IRIZAR

Horrelaxe azaldu digu Izaskunek zelakoa den, eta gu geu gara horren lekuko: benetan da neska alaia eta zoro samarra. Besteengan ere horixe estimatzen du gehien, umore onekoak izatea, alegia.

- **Alkate izango bazina, zer aldatuko zenuke?**
Ozaeta eta inguruak hobeto zaintzea eskatu nioke alkateari; alde batera lagata daukate auzoa.
- **Zure karpentan zer irudi edo pegatina daukazu?**
Surflarien argazkiak dauzkate.
- **Telebistako saio gorrotagarriena? Eta gustukoena?**

Egia esan, saio gehienak gustatzen zaizkit, baina gustatzen ez zaidan bat esatearren, Pedro Ruizena. Gustukoena, berriz, *Goenkale* eta *Siete vidas*.

- **Pertsonaia higuigarriena? Eta gustukoena?**
Higuigarriena, Estibaliz Sanz, *Hotel Glam*-en parte hartu duena; gustukoena, Unax Ugalde.
- **Zerk amorratzen zaitu?**
Faltsukeriak.
- **Zer estimatzen duzu besteengan?**
Izaerari erreparatzen diot, jende jatorra eta umore onekoa gustatzen zait; horixe estimatzen dut besteengan.
- **Zeri ematen diozu lehentasuna bizitzan?**

Familiari, lagunei eta, denok bezala, baita diruari ere.

- **Zure bertute bat? Eta akats bat?**
Oso alaia eta marizoro samarra naizela; hutsunea, berriz, jenio bizikoa naizela.
- **Zelan ligatzen duzue gazteok?**
Tabernetan, jai giroan. Dena dela, nik neuk ez dut ligatzen.
- **Zure bikotekide ideala zelakoa izango litzateke?**
Pertsona ona eta alaia.
- **Nora eta norekin egingo zenuke bidaia bat?**
Mutil-lagunarekin, Polinesia aldera.
- **Etorkizunerako amets bat?**
Mundu guztia berdintasunean bizi izatea.



ADINA: 19 urte • **IKASKETAK:** Batxilergoko bigarren maila • **ZALETASUNAK:** Lagunekin irtetea • **MUSIKA TALDEA:** Berri Txarrak
LIBURU BAT: 'El tango de Laura', Joaquim Freidrich-ena • **FILM BAT:** 'Recien casados' izan da ikusi dudana azkena • **KIROL TALDEA:** Reala

TIRABIRAKA/ Joseba Lasa



ZAHARRAKBERRI

Edadetuen kirol jaian 400 bat lagun batu ziren

EDU MENDIBIL

Debagoieneko 400 bat lagunek hartu zuten parte egubakoitzean Edadetuendako XII. Kirol Jaian. San Antonio egunean beroa izan zen protagonista, eta kirolzale beterranoek nahiko izerdi bota zuten. Debagoieneko herrietatik etorritako partaideak 15:00etan elkartu ziren Labegaraietako kiroldegian, eta berehala hainbat kirol ekintza egiten hasi ziren. Besteak beste, saskibaloia, badmintona, aerobika, toka, igela eta beste joko batzuk izan zituzten arratsaldean barrena. Lehia alde batera lagata, lagu-

nartean ondo pasatzea eta, bide batez, herrietako lagunaren arteko harremanak sendotzea zen jaian helburu nagusia. Partaidezari dagokionez, arrasatearrak izan genituen nagusi, 203 lagun etorri ziren-eta. Bergarako 98 lagun izan ziren Kirol Jaian.

Horrelakoetan gertatzen den moduan, giro ona izan zen nagusi. Debagoieneko edadetuek sasoi betean daudela erakutsi zuten berriz ere. Horren harira, beroa hain handia izanik, atsedenerako tartea beharrezkoa zen, eta opari banaketan ondoren luntxa izan zuten partaide guztiek. Eta dantzaldiaren ondoren, 19:00ak aldera bukatu zen jaialdia.




Harmailetan ere ikusle ugari egon ziren, eta bero handiari aurre egiteko haizemailerik ez zen falta izan.



E.M.

Igel-toka jokoaren zale asko daude Debagoieneko edadetuen artean.



Emakumeek fin jardun zuten Kirol Jaian, eta saskiratzeak egiteko trebezia handia erakutsi zuten.



San Joxepekoak San Antonion

San Joxepeko abesbatzak emanaldia egin zuen egubakoitzean San Antonion. Joxe Patxi Azkaratek zuzendutako koroak *Festara*, *Goizian*, *Viva tute*, *Santa Lucia*, *El tilo*, *Maitia nun zira*, *Mukhale hdi moyo* eta *Euskal Herriko* izenburuko kantuek abestu zituen. Emanaldiaren ondoren, San Antonioko lagunak luntxa eman zieten kantari beterranoei Gure Ametsa elkartearen San Joxepeko abesbatzak Antzuolako jailetan egingo du hurrengo emanaldia.

LABUR

Zumaiara eta Zarautzera irteera uztailaren 2an

San Joxepe elkarteak uztailaren 2rako mendi irteera antolatzen du. Autobusa 08:00etan irteera da Bergaratik Zarautzera eta mendi irteera egiteko dute kostaldean. Santa Berta barara eta Garate gaitzen hain zuzen. Horren ondoren Zumaiara egingo dute berriz. Parte hartzeko interes dutenek erretiratuen egiteko eman dezakete izena. Abesbatzaren aurretik 943 76 30 09 telefono zenbakera jaso daitezke.

BONO FOTOA



MIGUEL ANGEL ELKOROBREZIBAR

Errege Mintegia zein urtetan izendatu zuten Gipuzkoako Unibertsitate?
1722an, 1822an ala 1922an?

GALDEDEBALDE

1.

Zein izango da Bergarako Udaleko Kultura
dinamizatzaile berria?

- A/ Mertxe Zapiain.
B/ Jone Andonegi.
C/ Maider Osa.

2.

Zein sari jaso du Asier Altunak Huescan
Topeka film laburragatik?

- A/ La navaja de Buñuel.
B/ Danzante de oro.
C/ Cachirulo de plata.

3.

Zein denboralditan igo zen Eibar 2.B mailara
Juanjo Arrieta entrenatzailearekin?

- A/ 1984-85.
B/ 1992-93.
C/ 1982-83.



Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela
erabiltzeko du BERRIGARAK asmatzaileen artean!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

BERNARDO NUÑEZ endako izan da 30 euroko erosketa-txartela.

Zorionak, Bernardo!

Galderen erantzunak: Bonofotoa: Toki-Ederren / Galde debalde: 1-A, 2-A, 3-B.



BONO FOTOA

GALDE DEBALDE 1/ 2/ 3/

Ekarri txartela **MARTITZEN EGUERDIRAKO BERRIGARARA!**

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Calvo atun zuria oliotan

80 g-ko hiru lata

1,25 €

208 pezeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!



ESKULTORE BERGARARRAK GAUR


Santi
Arrieta

EDU MENDIBIL


Etiketak gustuko ez dituen arren, artistaren eta artisauaren arteko erdibideko puntu baten dagoela diosku Santi Arrietak (1959): "Ez naiz espezialitate bakar batera mugatzen, eta eskulturak egiteaz gain, pinturari ere ordu dezente eskaintzen dizkiot. Esaterako, muraletan pintura eta zeramika nahastea atsegin dut". Lehen urratsak pinturan eman zituen, eta gero hainbat zeramika ikastaro egin zituen Gironan, Asturiasen eta Debako Arte Eskolan. Orain dela 14 urte tailerra zabaldu zuen Bolun, eta han lantzen ditu piezak: "Andrea eta biok artisau feriatara joaten gara. Ferietan harreman zuzena sortzen da ikusleekin, eta lana ezagutzera emateko oso aproposak dira".

Estilo figuratiboaren eta kontzeptualaren artean kokatzen diren lanak egiten ditu, eta materiala agerian uztea bilatzen du. Lantzen dituen materialen artean (egurra, burdina, brontzea...) buztina du gustukoena: "Aukera asko eskaintzen ditu. Hori bai, teknika errespetatu beharra dago beti. Artelan baten atzean dagoen lana sarritan ez da baloratzen".

"Artisau feriak oso espazio aproposak dira norberaren lana ezagutzera emateko"



E.M.



**JAUJA
KIROLAK**

Irizar 2. BERGARA
943 76 14 95

INGELES

ikastaro trinkoak

Ekainaren 26tik
uztailaren 24ra arte

Haurrak, gazteak eta helduak

ESPOLON



School of English

espolonschoolofenglish@wanadoo.es

INFORMAZIOA:
Ibargarai 31,
barruko plaza.
BERGARA
Tf. eta faxa
943 76 03 53.

GARRAIOAK
ANDUZU
TRANSPORTES

BERGARA
607 349 043



Grua zerbitzua

Zerbitzu publikoa eta
era guztietako kargak

Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak BERRIGARAren bidez! Ekar ezazu bere argazkia* eta emaitza ezusteko ederra! **Doan!**

*Argazkiaren neurria, gehienez: 13 x 18 cm.
Pertsona bera bakarrik nahiz taldearen barruan agertzen den argazkia ekar dezakezu.
Argazkia oso-osorik jaso ahal izango duzu, zorion agurra BERRIGARAren agertu ondoren.
Argazkia, urtebetetze eguna baino bi aste lehenago ekartzea komeni da.




BERGARA
Ainhoa Sánchez
Ekainaren 21ean, 8 urte.
Urte askotarako! Aitita, amama eta etxeokak.



BERGARA
Alex Alférez
Ekainaren 17an, 6 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak eta osaba-izebak.



BERGARA
Jon Sarasketa
Ekainaren 23an, 10 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Jon Gantxegi
Ekainaren 20an, 3 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak eta lagunak.



BERGARA
Markel Labaka
Ekainaren 18an, 5 urte.
Urte askotarako!
Eukene.



BERGARA
Olaia Sánchez
Ekainaren 17an, 5 urte.
Urte askotarako!
Julen eta gurasoak.



BERGARA
Ane Blanco
Ekainaren 17an, 10 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



ANTZUOLA
Maddi Dávila
Ekainaren 20an, urtebete.
Urte askotarako!
Familiakoak.



ANTZUOLA
Xabat Askasibar
Ekainaren 18an, 2 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak eta familiakoak.



ANTZUOLA
Paula Iturrino
Ekainaren 18an, urtebetetzea.
Zorionak! Familiakoak.



BERGARA
Unai Sampietro
Ekainaren 26an, 2 urte.
Urte askotarako!
Asier eta Malen.



BERGARA
Iزارo Garmendia
Ekainaren 23an, 4 urte.
Urte askotarako!
Etxeko guztiak.



BERGARA
Amaia Castro
Ekainaren 25ean, urtebetetzea. Urte askotarako!
Lagunak.



BERGARA
Ainhoa Murillo
Ekainaren 22an, 5 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Oihane Altube
Ekainaren 2an, 2 urte.
Urte askotarako!
Leire, amatxo eta aitona.



BERGARA
Jon Durana
Ekainaren 22an, 6 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak, batez ere Ane.



ELGETA
Argider Txurruka
Ekainaren 19an, 7 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



ELGETA
Malen Campos
Ekainaren 17an, 2 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Yasmína Moreno
Ekainaren 21ean, 13 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



BERGARA
Maite Alberdi
Ekainaren 25ean, 8 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.

Adi! Argazkiak emateko lekuak:
Bergara: Berrigara, Irizar jauregia, Barrenkalea 33
Antzuola: Udal Liburutegia, astelehenetan 17:00etatik 19:00etara
Elgeta: Erosle-Baltxongua

TOKI-ONA
Bodegoia-taberna

Eguneroko janariak
Txitxizotzak
Kazolatxoak
Txabierroak

Matxiategi 1. BERGARA
Tel. 943 76 39 53

ARRI
Industri
hornidura

Zubiaurre, 30
BERGARA
Tel. eta faxa:
943 76 19 04.
Sakelakoa:
656 78 64 84.



Urteaga 9
BERGARA
Tf. 943 76 18 45

Dixula
BOKATAK
DAUZKAGU

Barrenkalea 32
BERGARA
Tf. 943 76 44 95

Sugoi

ERLOJUAK,
ARTIKULU
ELEKTRONIKOAK,
KALKULAGAILUAK...

Irizar pasealekua 2 behea
943 76 59 54 BERGARA

ARANE
KRISTALDEGIA

Artekalea, 18-behea.
BERGARA
Tel. 943 76 74 09
670 483 903

ETXAGI
JATETXEA

AFARIAK, BATAIOAK,
JAUNARTZEAK,
EGUNEROKO MENUA,
GOSARIAK,
BAZKARIAK...

Masterreka, 8
BERGARA
943 76 53 12



PROFESIONAL
liberalen
GIDA

ABOKATUAK

RAFAEL ARANBURU
Irizar 5. 943 76 10 81

MILAGROS LARRAÑAGA
Simon Arrieta 1. 943 76 16 28

BERNARDINO MAIZTEGI
Irizar 5. 943 7610 81

ANA MOZOS
San Pedro 6. 943 76 45 52

JUAN ANTONIO SIERRA
Irizar 2. 943 76 03 35

UGALDE & ASOCIADOS
Bidekurutzeta 27. 943 76 11 57
Faxa 943 76 03 02

INJINERUTZA

ANGEL ARIZABAleta PADILLA
Espoloia 10. 943 76 59 18

TEKNIBER
Urarte 18. 943 76 53 19

PROKURADOREAK

JOSE M. BARRIOLA ETXEBERRIA
Easo 57, 3-esk. (DONOSTIA).
943 45 27 26 / 656 41 55 49

GESTORIAK

EGUREN
Irala 3. 943 76 21 65

APAREJADOREAK

JOSE INAZIO MONDRAGON
Zurradero 8. 943 76 00 44

AHOLKULARITZA

AIERDI AHOLKULARITZA
Artekalea 1. 943 76 03 50

ALFIS
Ibargarai 22. 943 76 48 48

TBG AHOLKULARITZA
Matxiategi 36. 943 76 90 83

ZUHURKI SL
Bidekurutzeta 46. 943 76 33 53

ARKITEKTUAK

JON MUNIATEGIANDIKOETXEA
Barrenkalea 22. 687 73 75 67

JESUS LASKURAIN PÉREZ
Zurradero 4. 943 76 53 53

Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2003ko ekainaren 20a / 162. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com • Lege gordailua: SS1179/02


EAJ-EAko bost zinegotzik bakarrik hartu zituzten karguak zapatuko bilkuran

AINZANE IRIZAR

Gainerako herrietan moduan, aurreko zapatuan, 12:00etan, udalbatza osatzeko osoko bilkura berezia egin zuten Antzuolako udaletxean. EAJ-EAko hiru kargu hautatuak ez zuten kargua hartu. Gertu Gae plataformako hiru kidek hartu zuten parte osoko bilkuran.

Udalbatzako mahaian aurpegi berri asko ikusi genituen zapatuan: besteak beste, PSE-EEko Elvira Kortajarenarena eta EAJ-EAko hainbat zinegotzirenak. Azken horiei dagokienez, koalizioak hauteskundeetako emaitza ofizialen arabera zortzi zinegotzi lortu zituen arren, bostek baino ez zuten kargua hartu. Zerrendako seigarren, zazpigarren eta zortzigarren kargu hautatuak ez ziren osoko bilkuran egon, eta, hortaz, ez zituzten euren karguak hartu.

EAJ-EA koalizioak, baina, ez du oraindik inolako azalpenik eman. Jakinarazi digutenaren arabera, datozen egunotan azalduko dituzte herritarren aurrean erabaki horren arrazoiak zeintzuk izan diren.



Plataformako hiru kidek, EAJ-EA koalizioko bostek eta PSE-EEko batek hartu zuten parte osoko bilkuran.

GERTU GAE OSOKO BILKURAN

Gertu Gae plataformari hauteskundeetan parte hartzen laga izan baldio, hiru zinegotzi izango lituzke orain. Horregatik, zerren-

dako lehendabiziko hirurak osoko bilkuran egon ziren; hain zuzen ere, orain arte alkate izan den Mireia Unamuno, Juan Antonio Iturbe eta Patxi Olabarria. Esan

bezala, EAJ-EA koalizioko seigarren, zazpigarren eta zortzigarren kargu hautatuak kargua hartze-
ra joan ez zirenez, plataformako kideek eserlekuak hartu zituzten

Jose Angel Zabalok bost boto lortu zituen, eta hura izendatu zuten alkate

eta hantxe egon ziren osoko bilkura iraun zuen bitartean.

Kargu hartzeak bukatu ostean, berriz, alkatea aukeratzeko bozketari ekin zioten. Bost boto lortu zituen Jose Angel Zabalok, eta hura izango dugu, hortaz, alkate berria.

Kargua hartu ondoren, hiru batzuk izan zituen Zabalok herritarrendako: alde batetik, koalizioan eta berarengan konfiantza izan duten herritar guztiei esker, besteak, hauteskunde garaian behin eta berriz adierazi duen moduan, lan egiteko gogoz. Udalera doazen guztientzako ateak zabalik dituela gogoratu zuten. Bukatzeko, elkarrizketaren alde azaldu zen Zabalok, eta hurrengo bilkura bitartean gainerako alderdiekin bertan egongo duela adierazi zuten.

JAIK

Ondarreko jaiak eta San Juanak ospatuko dituzte aste bukaeran

Hamar urteren ostean, aurten berriro antolatuta dituzte Gorpuzti jaiak Ondarren. Bihar, zapatua, hasiko dituzte ekitaldiak: 12:00etan, gimkana jokoak egongo dira, Peña Aiastuik antolatuta; 16:00etan, umeendako jolasak egongo dira; eta 18:00etan, berriz, krosa, hura ere umeendako.

20:30ean, auzokoei afaria egingo dute eta afalostean dantzarako aukera egongo da trikitilariekin; 22:00etan, bideo emanaldia egingo dute Ondarreko plazan, eta garai bateko Antzuola

la ikusteko aukera izango dugu.

Domekan, berriz, Gorpuzti Eguna ospatuko dute: 12:30ean, mezaren ondoren, prozesioa egingo dute elizatik Ondarreko plazara. Hantxe aldare bat jarriko dute, lorez apainduta, eta loreak bedeinkatuko ditu abadeak.

Prozesioa da, hain zuzen ere, hamar urteotan egin duten ekitaldi bakarra; nahiz eta jairik ospatu ez, urtero egin izan dute.

13:00etan, berriz, herriko dantzarien saioa izango dugu Ondarreko plazan bertan.

SAN JUANAK

Domekan, hilaren 22an, San Juanak ospatuko dituzte Uzarragan. Goizeko hamarretan meza egongo da, eta gero, dantza saioa izango dugu Uzarragako plazan.

San Juan bezperan, berriz, ekainaren 23an, herrian bertan ospatuko dute jaiak. Iluntzean, 20:30ean, hain justu, arbola jasoko dute Herriko Plazan, eta gero, Oinarin taldeko dantzarien saioa izango dugu. Gero, balkoi eta leihoetako lore lehiaketako sariak banatuko dituzte.



Astelehenean, San Juan bezperan, jasoko dute arbola Herriko Plazan.

GAZTETXEA

Gazte Asanbladako kideek aurrera segitzen dute gaztetxeko egokitzapen lanekin

Aste Santu aurretik jaso zituzten Gazte Asanbladako kideek gaztetxea izango den lokaleko giltzak. Berehala hasi zituzten egokitzapen lanak, baina oraindik lan handia dago egiteko. Jaietarako zabaldu nahi dute herriko gaztetxea, baina ez da erraza izango.

Lokalean zeuden hormak bota egin dituzte, lokala pintatu egin dute... Lan handia egin dute Aste Santu aurretik giltzak jaso zituztenetik hona, baina oraindik dezente geratzen zaie. Lan hori guztia egiteko gazte talde handia elkartu du Gazte Asanbladak, eta hala azaldu digute: "Herriko gazteek oso ondo erantzun dute; adin guztietako gazte asko ibili gara lanean azkeneko hilabeteotan".

Besteak beste, lokalaren fatxada txukuntzea eta lokalaren barruan ke-erazgailua jartzea geratzen zaie, baina lan horiek ez dituzte gazteek eurek egingo, gremioak kontratatuko dituzte. Horretarako, 6.000 euro inguru eman die Antzuolako Udalak.



Herriko gazte askok dihardute gaztetxea egokitzeko lanetan.

GAZTETXEA, ZELAKOA?

Asanblada bitartez funtzionatzen dute gazteok, eta halaxe hartzen dituzte erabaki guztiak. Gaztetxeak zelan funtzionatuko duen

ere erabaki beharko du asanblada horrek, baina oraindik ez dute horren gaineko erabakirik hartu. Ildo horretatik, taberna jarri edo ez eztabaidatzen dihardute-

la azaldu esan Gazte Asanbladako kideek. Hasiara baten, edari eta janari makinak jarriko dituzte lokalean; denborarekin, eta gaia ondo aztertu eta eztabaidatu ondoren hartuko dituzte bestelako erabakiak.

Funtzionamenduari dagokionez, argi daukatena da gazteek eurek kudeatuko dutela gaztetxea. Dena dela, Udalarekin klausula bat sinatu zuten orain dela gutxi; hainbat baldintza onartu zituzten klausula horren bitartez. Zera adierazi digute horren gainean: "Barne funtzionamendua gure esku laga dezatela eskatzen dugu; gure jarduerak kanpoan eragina badute, jakina, onartzen dugu Udalak esku hartzea".

JAIETARAKO EGITARAUA

Gazte Asanbladako kideen nahia da jaietarako zabaltea gaztetxea, baina, esan bezala, lan handia dago egiteko, eta ikusi egin behar posible den edo ez. Dena dela, egitarau zabalda prestatzen dihardute herriko jaietara begira: herri kirolak, kontzertuak eta txekorrak egongo dira, besteak beste, Gazte Asanbladak antolatuta.

LABUR

'Biblioporrak', udan irakurtzeko hainbat gomendio

Antzuolako Udal Liburutegiak, ibarreko gainerako liburutegiekin batera, *Biblioporrak* izeneko eskuorri bat argitaratu du. Udan irakurtzeko hainbat liburu gomendatzen ditu. Eta adin tarte guztiak kontuan hartuta, umeendako, gaztetxoendako eta helduendako 70 liburutik gora gomendatzen dituzte eskuorri horretan. Helburua da udako oporretan ere irakurtzeko zaletasuna bultzatzea. Eskuorri horiek etxe etxe banatuko dituzte; Herri Ikastetxean, anbulatorioan, udaletxean eta liburutegian bertan ere egongo dira eskuragarri.

Udaletxeak eta liburutegiak ordutegi berria

Urtero moduan, ordutegia aldatu dute udaletxeak eta liburutegiak. Udaletxearen kasuan, astelehenetik egubakoitzera egongo da zabalik, 08:00etatik 15:00etara. Ordutegi hori izango du irailera arte, iraila barne.

Liburutegiak ere beste ordutegi bat izango du gaurtik, egubakoitza, irailaren 15era arte. Goizez egongo da zabalik, 11:00etatik 14:00etara, hain zuzen ere. Abuztuan, berriz, itxita egongo da.

Sinadurak bilduko dituzte herriko erretiratuek


Toledoko hitzarmena berri-tuko dutela eta, euren eskarek eragina izan ditzaten, sinadurak batuko dituzte erretiratuek. Euren pentsioengan eragina du hitzarmen horrek. Ekainaren 23an, 24an eta 25ean egongo dira sinadurak batzen erretiratuen elkartean, 18:00etatik 19:00etara. Gogoratu ezazue nortasun agiria eraman behar duzuela, zenbakia beharrezkoa da eta.

Dantzariz bete ziren kaleak

Ia 200 ume eta nagusik hartu zuten parte aurreko domekan Ume Dantzarien Egunean. Umeak, dantzak eta sargoria izan ziren eguneko protagonista nagusiak. Aurreko egunetan moduan, izugarriko beroa egin zuen domekan, eta parte hartu zuten umeek nahiko lan izan zuten; eguerdian ume bat baino gehiago jarri zen ondoezik beroagatik.

Hala eta guztiz ere, jende askok hartu zuen parte aurreko domekako ospakizunetan./A.I.



 **Zabalo Iturgintza S.L.**
Bidea eginez

Tailerra: Uzarraga bidea, 10, Antzuola. Tf. 943 78 71 78
Erakusketa: Kalebarren, 1, Antzuola. Tf. 943 78 71 79, Tf. eta F. 943 76 64 73

- Gasa
- Berogailuak
- Haire egokitua
- Enpresen mantenimendua
- Lurrin instalazioak
- Bero-urreztea
- Bainugelak. Proiektuak momentuan DIBaren bidez
- Birgaitze-espeditentak bideratzen ditugu

EGAÑA

Era guztietako arotz lanak

Tarima eta parketa jartzea
Zoruen kutxilatua eta barnizatuak

Kalegoi 21, ANTZUOLA Tel.: 943 76 64 23

Goibekokale

ELGETA / Barikua / 2003ko ekainaren 20a / 146. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Irati Agirreazaldégi • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com • Lege gordailua: SS475/95

Uztailerako kirol ikastaroak antolatu dituzte adin guztietako herritarrendako

IRATI AGIRREAZALDEGI

Udako Kirol Kanpaina jarri du abian Elgetako Udalak, Foru Aldundiaren babesarekin. Aerobikean, patinajea, pilotan, karatean eta squashean jarduteko aukera izango dute elgetarrek, eta txikiendako aisialdi jarduerak antolatu dituzte.

Uztailaren 7tik 24ra bitartean 2003ko Udako Kirol Kanpaina izango da Elgetan. Adin tarte guztiendako antolatu dituzte kirol ekintzak aurten, eta goizez zein arratsalde izango da kirolean jarduteko aukera.

Jarduera gehienak umeendako eta gaztetxoendako izango dira, baina helduek ere egin ahal izango dute ariketa fisikorik aurtengo udan. Euren prestatu dituzte, esaterako, *aerobik-fitness* saioak eta Squash Txapelketa.

13 urtetik gorakoek asteleheneretan eta eguaztenetan izango dute aerobik ikastaroa, kiroldegian, 19:00etan. Eta 7 eta 12 urte artekoek, aldiz, astean hiru egunean izango dute aerobik ikastaroa, 18:00etatik 19:00etara.



Txikienek hainbat aisialdi ekintza eta kirol jardura izango dituzte aukeran; nagusiek, berriz, aerobika eta squash.

SQUASHA

Aurten lehen aldiz antolatu dute Squash Txapelketa, eta 16 urtetik gorako edonork har dezake parte. Partiduak egubakoitzetan

eta zapatuetan jokatu dira, kiroldegian, 18:00etan, eta gutxienez zortzi lagunek eman behar dute izena txapelketa abian jartzeko.

Bestalde, 3 eta 12 urte arteko umeendako, alde batetik aisialdi ekintzak eta bestetik hainbat kirol batzen dituen ikastaroa antolatu dituzte. Astebarruan izango dira

ikastaroak, kiroldegian, goizez, eta 38 euro ordaindu beharko dira parte hartzeko. Taldeek gutxienez zortzi umek eta gehienez hogeita umek osatutakoak izan beharko dute.

Patinajea, pilota eta defentsa pertsonala eta karatea dira Udako Kirol Kanpainarako prestatu dituzten beste kirol ikastaro batzuk. Patinajea eta pilotan 7 eta 16 urte arteko umeek jardungo dute. Defentsa pertsonalean eta karatean lehen pausok emango dituztenak, berriz, 13 urtetik gorako elgetarrak izango dira. Hiru ikastaro horien kostua 15 eurokoa da eta talde bakoitzeko gutxienez sei ikasle eta gehienez hamabost egongo dira.

Kirol ikastaro horietan izena emateko azken eguna ekainaren 27a da. Interesatuak Kutxako sukurtsalean (udalaren kontu korronte zenbakian) dirua sartu eta ondoren, udaletxean izenemate orria bete eta diru sarritan zientzaren kopia eman beharko dute.

Ikastaroen gaineko argibide gehiago udaletxean bertan jas daiteke. Elgetarrei, hortaz, udal kirolerako aukerarik ez zaie faltatu izango.

TXIRRINDULARITZA

Elgetarren omenaldia Jone Muxikari


Emakumeen Birako erlojukontrako proba Elgetan amaitu zen zapatuan, eta domekako etapa ere bertan hasi zen. Luperini italiarra izan zen erlojukontrako igoerako irabazle eta Melchers-ek -Sidneyko Olinpiar Jokoetan txapeldunorde- irabazi zuen Bira.

Baina Elgetan txirrindularitza txapeldunik bada Jone Muxikari da bera. Euskadiko Ziklo-kros Txapelketa irabazi zuen Alfa Decoko txirrindulariak urte hasieran, Beran, eta zortzigarren izan zen Espainiakoan.

OMENALDIA

Hala, txirrindulari elgetarrak merezitako omenaldia jaso zuen domekan, Emakumeen Birako azken etapa hasi aurretik.

Udalaren izenean alkateak plaka bat eman zion, txirrindulari elkarteak Emilio Mandalunizek oroigarri bat, eta Joane Somarribaren eskutik lore sorta bat jaso zuen, txirrindularien partetik. Dantzari elgetarrek dantza bat eskaini zioten eta horren ondoren, Jonek berak moztu zuen lasterketa hasierako zinta.



Joane Somarribak lore sorta bat eman zion Jone Muxikari, txirrindularien izenean.


LABUR

Santanderreara irteera, erretiratuendako

Ekainaren 30erako irteera komertziala antolatu du Santanderko San Vicente de la Barquera herrira. Erretiratuak doan joan ahal izango dira, baina horretarako gutxienez 35 lagunek eman beharko dute izena. Irteera 08:30ean izango da.

Bestalde, erretiratuak naraiz nahi diete domekako hilaren 22an, 11:00etatik 13:00etara bitartean, erretiratuaren egoitzatik pasatu beharko dutela urteko kosta ordaintzeko: zazpi euro.

UDALBATZA



Elkarrizketan EAJ-EA koalizioko zinegotziak eta alkatea, eskuman Aralarrekoak eta Udaleko idazkaria.

EAJ-EA koalizioko eta Aralarlarko zinegotziek osatu dute udalbatza

Gainerako udaletan moduan, Elgetan ere joan den zapatuan egin zuten udalbatza osatzeko bilkura. Normaltasuna izan zen nagusi batzarrean, eta sei zinegotzik eta alkateak hartu zuten kargua. Horrela, datozen lau urteotarako udalbatza osatuta geratu zen.

Patxi Basauri Elkoro izendatu dute berriro ere Elgetako alkate, eta koalizioko kideek emandako botoekin. Zapatuan udalbatza berria osatu zuten Elgetako udalbatzean, eta EAJ-EA koalizioko zinegotzien lau botoei esker zuzenagaren agintaldia egingo du Basaurik herriko alkate karguan. Aralarlarko zinegotziek, berriz, zuzen hautagai Oxel Erostarbek-ekin aldeko botoa eman zuten.

Adineko Mahaia osatu eta berehala, Aralar alderdiko alkategai Oxel Erostarbek hartu zuen hitza. EAJ-EA koalizioko zinegotzietan balio gabetutako botoak errespetatzeko eta plataformari zegokion eserlekua lagatzeko eskatu zien. Izan ere, boto horiek balio izango balute, zinegotzien banaketa ezberdina izango litzateke: EAJ-EA koalizioak ordezkari bat galduko luke Elgeta Auzolanian plataformaren mesedetan.

Elgeta Auzolanian plataformako zerrendaburu Edurne Alberdik egin zuen berba gero, eta Oxel Erostarberen esanekin bat zatorrela adierazi zuen. Bide batez, EAJ-EAkoie adierazi zien alderdien legez kanporatzearen aurka baldin badaude ez daitezela hitz hutsetan geratu eta hori ekinztekin azal dezatela. Berbetaldia amaitzeko, besteen ezbeharreki-

ko axolagabekeriaren gaineko poesia bat irakurri zuen Edurne Alberdik.

Alkateak kargua hartzerako orduan ere berba batzuk egin zituen: "Inoiz baino ilusio handiagoarekin izango naiz denon alkate hemendik aurrera", esan zuen Patxi Basaurik.

Udalbatza osatzeko bilkuran normaltasuna izan zen nagusi. Udaletxeko aretora joandako 30 herritar inguruk segitu zuen ezohiko bilkura.

EAJ-EA koalizioko Patxi Basaurik, Iñaki Ugarteburuk, Joseba Muxikak eta Izaskun Larreak egin zuten alkate eta zinegotzi karguen zina, baita Aralarlarko Oxel Erostarbek, Iban Retolazak eta Rebeka Uberak ere.

Orain, hilabete egongo da batzordeak osatzeko eta batzordeburuak aukeratzeko.

JAIK

Anne Igartiburuk ez ditu jaiak aurkeztuko

I.A.

Jai batzordeko kideek herritarrei ezustekoa eman eta gaurko kabaret ikuskizunera eta jaien aurkezpenera Anne Igartiburu aurkezle ezaguna ekarri nahi zuten. Baina azken unean lan konpromisoak direla eta, elorriarra ezin izango da elgetarren artean egon.

Gaur, egubakoitza, Azoka Nagusiko jaiak aurkeztuko ditu Jai batzordeak Espaloia aretoan. Hain zuzen ere, kabaret ikuskizunaz gozatu ahal izango dute herritarrek.

Jai batzordeak beste gozagarri bat ere jarri nahi izan du elgetarrendako: Anne Igartiburu telebistako aurkezle ezagunaren presentzia, hain zuzen ere. Baina, ahaleginak ahalegin, kabaretarekin konformatu beharko dute


aurkezpenera joaten direnek. Izan ere, elorriarrak, aktore eta telebistako lanak direla-eta, ezin izango du aurkezpenean egon.

Hala ere, seguru aski, Espaloian irakurtzeko mezuren bat bidaliko duela iragarri dute.

Jendearen eskura jarritako gonbidapen guztiak agortu egin dira; hortaz, aretoan jende asko egotea espero dute.

Bestalde, gogorarazi nahi dute jaietako lehen egunean egingo den herri afarirako txartelak salgai daudela. Afaria plazan izango da, eta eguraldi txarra eginez gero, berriz, Espaloian.

'EGUNKARIA'
Jaien aurkezpenera aprobetxatuz, gaur, egubakoitza, *Egunkaria*-ren aldeko batzordeak akzioak jarriko ditu salgai Espaloia aretoaren sarreran, nahi duenak eros ahal ditzan.



Anne Igartiburu ez da etorriko, baina kabaret ikuskizunak ez da falta izango.



'Egunkaria'-ren alde 1.400 euro

Kirol jaialdi herrikoia egin zuten joan den zapatuan Elgetako pilotalekuan. Herriko kirolari eta kirolzaleek frontoia lepo bete zuten eta, apustu giroan, futbolekin, saskibaloian, herri kirolekin, bizikletan... jardun zuten nor baino nor gehiago. Sarrerekin eta erronkak galdu zituztenek jarritako diruarekin 1.400 euro jaso zituzten.

Bestalde, batzordeak gogorarazi nahi du afariaren zozketako zenbaki saritua 561 izan dela, eta oraingoz ez dela irabazlerik agertu./I.A.

LABUR

KZGunea lekuz aldatuko dute uztailean

KZGunea kultura etxeko lehengo solairuan dago, baina uztailean azken solairura aldatuko duela eman du adizterza Udalak.

Orain arte KZGunean egon diren zortzi ordenagailuak elgetar askok erabili dituzte, baina lehen erabilera fasea beteta, hiru ordenagailu bakarrik utziko dituzte. Liburutegiaren ordutegi bera izango du, eta, egokitu ondoren, uztaileko zabaltzea espero dute. Instalazio berria 785 euro kostatzen da.

ERRETRATUZAHARRA

BERGARA

1944ko herriko
kintoen bazkaria,
1980an

Argazkikoak 1944ko herriko kintoak dituzue. Aspaldi utzi zioten kintoen eguna ospatzea-ri, eta alboko argazkia orain dela 23 urtekoa da, 1980ko ekainaren 5ean ateratakoa da-eta. Egun hartan Zumelaga jatetxean bazkaldu zuten, eta argazkia jotetxe aurrean ateratakoa da. Ezkerretik eskumara:

Atzean: Eladio Etxeberria, Jesus Muruamendiaraz, Julio Larrañaga, Eugenio Igartza, Faustino Lazkano, Bonifacio Iraegi, Juan Alberdi, Leandro Narbaiza, Jose Mari Atorrasagasti, Jose Mari Lete eta Arana.

Aurrerago: Casimiro Irazabalbeitia, Julian Unamuno, Ramon Azpeitia, Eusebio Arando, Fermin Muxika, Blas Ugalde, Teodoro Agirre *Kanpaia*, Gotzon Barrenetxea-Arando, Jesus Ibañez eta Angel Eguren (txapelduna).

Makurtuta: Angel Iñurrategi, Ambrosio Lamarain eta Murgia.

Argazkia: Ramon Azpeitia.



ADI, IRAKURLE!


Zure erretratu zaharra argitaratzea nahi izanez gero, zatoz BERRIGARARA (Irizar jauregia, Barrenkalea 33) edo Elgetako kultura etxera. Zain gaituzu!

NOLA ALDATUDIRENGAUZAK

BERGARA


Eguren
tailerra

I bargarai kalean Eguren tailerra zegoeneko argazkia duzue ezkerrekoa. Tailer hura urte askoan egon zen han, eta orain dela zazpi bat urte bota egin zuten. Hala ere, Bergarako Udalak tailerreko makineria erosi zuen, garai bateko industria ondarea gordetzeko. Tailerra bota zutenetik hona etxebizitzak egin dituzte inguruan, eta tailerraren lekuan aparkalekuak daude gaur egun.



≈ 1996

Eguren tailerra zena. Bertako makineria erosi zuen Udalak, etorkizunean garai bateko industria zelakoa izan zen erakusteko.



2002

Tailerra zegoen tokian aparkalekuak egokitu zituzten, eta autobus geltokia han egon da orain dela gutxira arte.

Zumelaga
JATETXEA

60 urte zuen zerbitzura!

San Antonio 5. BERGARA. 943 76 20 21

Jose M. Martin

pinturak - paper pintatuak
sintasola - moketak - gotilea
pintura industrialia

Errekalde auzoa 5, 1.a
ANTZUOLA
Tf. 943 76 62 02 /
666 517 295

UREDERRA
ITURGINTZA

Iturgintza
Berogintza
Aire egokitua
Konponketa
Salmenta

Arruriaga 11
686 943 918

Mujika
gozotegi

Bizkotxo
Erreilena
Tostoiak

Artekalea 3 BERGARA
943 76 10 34



Aukera onenak. Orrazkera apainenak.

ADATS

Herri lagunak 4
BERGARA
943 76 49 51

- Europako azken tendentziak
- Zerbitzu berezi eta pertsonalizatua
- Solarium bertikala



Boni Laskurain 2
BERGARA
943 76 56 05

- Txapelketetako Gipuzkoa taldekoak
- Kerastase tratamend.
- Makillaje bereziak
- Abangoardia lanak

disdira

Masterreka 7
BERGARA
943 76 00 55

- Luzatzeak
- Azken joerak
- Ezkontzak
- Metxak eta moldeatuak

IDOLA

Espoloia 4
BERGARA
943 76 97 75

- Ile luzatzeak
- Aurpegiko larruzal garbitzea
- Solariuma

ileak

Ozaeta 3
BERGARA
943 76 22 54

- Ilerako tratamenduak
- Teknika berriak
- Era guztietako orraskerak

IZARRA

San Pedro 23
BERGARA
943 76 29 72

- Luzatzeak, ile-kordak, rastak
- Ilerako bitxiak
- Solariuma dutxarekin

Jean Louis David

Ibargarai 43
BERGARA
943 76 22 48

- Teknika aurreratuenak
- Deskontu txartelak
- Solariumerako bonoa
- Estilistaren aholkuak, konpromiso barik

KIZKUR

Bolu 51
BERGARA
943 76 50 32

- Ile apaindegia eta estetika areto integrala
- Azken joerak
- Puntako markak

ORRASKI

San Pedro 6
BERGARA
943 76 47 01

- Ile apaindegi mistoa
- Kolore bereziak
- Ezkontzak
- Solariuma



Ibargarai 42
BERGARA
943 76 72 76

- Ile mozte eta kolore pertsonalizatuak
- Depilazioa eta makillajea
- Solariuma dutxarekin

Pepelu

Zurradero 2
BERGARA
943 76 43 07

- Gizonezkoendako
- Labanaz moztea
- Azken tendentziak
- Bizartegia
- Kolorea

SANCHEZ

Fraiskozuri 4
BERGARA
943 76 23 70

- Gizonezkoendako
- Labanaz moztea
- Klasikoa/modernoak
- Bizartegia
- Kolorea

GREMIOEN GIDA

zure etxearen osasun onerako

ARREGI AROZTEGIA



Urteaga 20
943 76 11 73
Erakusketa:
Bidekurutzeta 38
943 76 31 03

- Orotariko arotz lanak
- Sukaldeak
- PVC leihoak

GOYSMA

Urteaga 9
943 76 98 12

- Iturgintza
- Berogintza
- Gasak



AGIRRE MARGOAK

Ortuibar 1, 3-C
943 76 53 82
Tailerra:
Alkabieta 7

- Orotariko pintaketa lanak

ARISTEGI-TOLA



ITURGINTZA

Bolu 26
943 76 54 17

- Kalefakzioa
- Bainurako altzariak eta dekorazioa
- Konponketak

UGARTE AROZTEGIA-ALTZARIAK

San Juan 1 A
943 76 54 91
F 943 76 08 04

- Orotariko arotz lanak
- Apainketa, soruak, leihoak, atek



J.M. IZAGIRRE Igeltseritza

Loidi baserria,
Angiozar
943 76 56 86

- Teilatu, fatxada, sukalde eta bainugelen berrikuntza

El izarra elektrizitatea

Zubieta 10
943 76 54 10
943 76 19 99
943 76 10 60

- Orotariko instalazio elektrikoak

BERGARA Margoak

Amillaga 1, 1. pab.
162 p.k.
943 76 97 31
F 943 76 97 32

- Orotariko pintaketa lanak
- K-21 agiria

bergara.margoak@terra.es

